# FORU DEKRETU ARAUEMAILEA 5/2013, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena (BAO Abenduaren 13koa)

Abenduaren 29ko 5/2009 Foru Araua da Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoaren ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-jarduera arautzen duen erreferentziako dokumentu juridikoa.

Hala ere, 5/2006 Foru Arauak aldaketa batzuk izan ditu argitaratu zenetik hona, eta aldaketa horiek, oro har, aurrekontuei buruzko urte bakoitzean egindako foru arauetan sartu izan dira. Batzuetan, egoera berriei egokitzea izan da aldaketaren helburua; beste batzuetan, berriz, indargabeturik gelditu dira zaharkituta geratu diren manuak, eta, beste batzuetan, aldiz, xedapen berriak onartu dira. Edonola ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2013. urterako aurrekontu orokorrei buruzko otsailaren 7ko 1/2013 Foru Arauaren bidez egin den erreformara arte, aldaketa guztiak gauza batean etorri dira bat: haien izaera puntualean. Azken arau horrek, ordea, oso aldaketa handia ekarri du. Izan ere, haren bidez foru fundazioak gehitzen zaizkio foru sektore publikoari, eta haien araubidea diseinatzen du hainbat arlotan (lege-arloa, aurrekontua, kontabilitatea, zorpetzea, kontrola eta erantzukizuna); horrez gainera, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorrean berriki onartutako aldaketak gehitzen zaizkio arauari, eta zenbait artikulu argitu eta zenbait gabezia tekniko konpontzen dira.

Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina egiteak aukera ematen du 5/2006 Foru Arauren jatorrizko testua eguneratzeko eta izan dituen aldaketa guztiak sartzeko; horrek, zalantza barik, aukera emango du segurtasun juridikoa areagotzeko eta aurrekontuei buruzko foru ordenamenduari argitasun handiagoa emateko.

Hain zuzen ere, foru arau hauek ukitzen ditu testu bateginak: 5/2006 Foru Araua, eta foru arau hori aldatzen duten abenduaren 27ko 9/2007 Foru Araua (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2008. urterako aurrekontu orokorrei buruzkoa), ekainaren 30eko 5/2008 Foru Araua (jarduera ekonomikoa sustatzeko zerga neurriak, Sozietateen gaineko zerga kontabilitate arloko aldaketara egokitzeko zerga neurriak eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituena) abenduaren 23ko 3/2009 Foru Araua (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2010. urterako aurrekontu orokorrei buruzkoa), eta, azkenik otsailaren 7ko 1/2013 Foru Araua (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2013. urterako aurrekontu orokorrei buruzkoa).

Xedapenen hurrenkera aldatzeko ahalmena erabili da gaur egungo azken xedapena xedapen bakarra izatera pasatu dadin.

Hori dela eta, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduaren 3ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau.

XEDATZEN DUT:

### Artikulu bakarra. Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2013. urterako aurrekontu orokorrei buruzko otsailaren 7ko 1/2013 Foru Arauaren azken xedapenetako lehenengoan emandako ahalmena erabilita, aurrekontuei buruzko foru arauaren testu bategina onartzen da. Testu hori dekretu honen ondoren eransten da.

## Xedapen gehigarria

### Bakarra. Araudiari buruzko aipamenak.

Orain onartzen den testu bategin honi egindakotzat joko dira beste xedapen batzuetan Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauari eginiko aipamenak.

## Xedapen indargabetzailea

### Bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira honako foru dekretu arauemaile honetan xedatu denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, zehatzago, hauek:

- Abenduaren 29ko 5/2006 Foru Araua, Aurrekontuei buruzkoa.

- Abenduaren 27ko 9/2007 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarria; foru arau hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2008. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da.

- Ekainaren 30eko 5/2008 Foru Arauaren 17. artikulua; foru arau horren bidez, jarduera ekonomikoa sustatzeko zerga neurriak, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate arloko aldaketara egokitzeko zerga neurriak eta beste zerga neurri batzuk onartzen dira.

- Abenduaren 23ko 3/2009 Foru Arauaren bederatzigarren xedapen gehigarria; foru arau hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2010. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da.

- Otsailaren 7ko 1/2013 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarria; foru arau hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2013. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da.

## Azken xedapena

### Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu arauemaile hau eta haren bidez onartzen den testu bategina «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean.

### Bigarrena. Batzar Nagusiei jakinaraztea.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 11. artikuluaren 7. zenbakian ezarritakoaren arabera, Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie foru dekretu arauemaile honen bidez onartzen den testu bategina.

**AURREKONTUEI BURUZKO FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA.**

## ATARIKO TITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

### I. KAPITULUA.
### XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

### 1. artikulua. Foru arauaren xedea.

Foru arau honen xedea Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoaren aurrekontu-araubidea, ekonomia- eta finantza-araubidea, kontabilitatearena, fiskalizazioarena eta finantza-kontrolaren araubidea arautzea da.

Foru arau hau ez zaie Batzar Nagusiei ezarriko, horiek autonomiadunak baitira aurrekontuen arloan. Hala ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua egiteko behar den koordinazioa egongo da.

**2. artikulua. Foru sektore publikoaren sailkapena.**

1. Lurralde Historikoko foru sektore publikoa honako entitate hauek eratzen dute:

   a) Bizkaiko Foru Aldundia.

   b) Foru erakunde autonomoak.

   c) Foru enpresa-erakunde publikoak.

   d) Merkataritzako foru sozietateak.

   e) Foru fundazioak.

   f) Foru partzuergoak eta eskubide publikoko beste foru erakunde batzuk, goian aipatu ez direnak.

2. Arau honi dagokionez, foru sektore publikoa honela dago banatuta:

   2.1. Sektore publiko administratiboa, eta honako hauek osatzen dute:

      a) Bizkaiko Foru Aldundia.

      b) Foru erakunde autonomoak.

      c) Goiko atalaren f) letran aipatutako erakundeak, baldin eta bi ezaugarri hauetako bat betetzen badute:

         1.a. 1.a. Jarduera nagusia ez izatea merkatu-legearen arabera kontsumo indibidual edo kolektiborako ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea; edo, bestela, errenta eta aberastasun nazionala birbanatzeko operazioak egitea, betiere irabazi-asmorik gabe.

         2.a. 2.a. Merkataritzako diru-sarrerekin nagusiki finantzatuak ez izatea; foru arau honen ondorioetarako, honela ulertzen dira diru-sarrera horiek: ondasunak ematearen edo zerbitzuak eskaintzearen ordainetan eskuratutako dirusarrerak, edozein dela ere haien izaera.

   2.2. Enpresa-sektore publikoa, eta honako hauek osatzen dute:

      a) Foru enpresa-erakunde publikoak.

      b) Merkataritzako foru sozietateak.

      c) Foru fundazioak.

      d) Artikulu honetako 1. zenbakiko f) letran aipatutako erakundeak, baldin eta administrazio-sektore publikoan sartuta ez badaude.

3. Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek nortasun juridiko berezia dute, ondare propioa eta diruzaintza, baita kudeatzeko autonomia ere, foru arau honetan eta ezargarria den gainerako arautegian ezarritakoaren arabera.

4. Batzar Nagusiei lotutako eskubide eta betebeharren titulartasuna Foru Aldundiari dagokio, foru organo horrek horien gainean dituen eskumenak gorabehera.

### 3. artikulua.Foru erakunde autonomiadunak.

1. Foru erakunde autonomiadunak Lurralde Historikoan izaera publikoa duten erakundeak dira, helburutzat Bizkaiko Lurraldearen eskumenekoak diren jarduerak deszentralizazio-araubidean burutzea dutenak. Zuzenbide publikoak arautzen ditu.

2. Foru erakunde autonomiadunak foru arau baten bidez sortu eta iraungiko dira. Horiek sortzeko foru arauak zehaztuko du beraien izaera.

   Erakunde bat iraungitzeko ez da beharrezkoa izango arau berezi bat, baldin eta sortzeko arauan edo besteren batean iraungipenaren arrazoiak eta berau burutzeko prozedurak zehaztu badira.

3. Foru erakunde autonomiadunek foru arau honen xedapenak izango dituzte manuzko, baita beronek arautzen ez dituen arloetan ezarri ahal zaizkion gainerako arauak ere.

### 3 bis artikulua. Foru partzuergoak.

1. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aipatzen diren nortasun juridiko propioko partzuergoak foru sektore publikoaren parte izango dira baldin eta foru sektore publikoa osatzen duten erakundeetako batek edo batzuek ordezkaritzaren ehuneko berrogeita hamar baino ordezkaritza handiagoa badute erakundearen gobernu-organoetan, hau da, erakundearen egintzak zuzenean edo zeharka Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakitzeko duen boterearen mende badaude.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez sortuko eta azkenduko dira foru partzuergoak, eta beharrezkoa izango da Batzar Nagusiek erabakia berrestea.

   Partzuergoa azkentzeko ez da erabaki espezifikorik hartu behar izango baldin eta partzuergoa sortzeko erabakian ezarrita badaude azkentzeko arrazoiak eta prozedura.

3. Administrazio-sektore publikoko foru partzuergoek foru arau honetan jaso eta foru erakunde autonomoei aplikagarri zaizkien xedapenak bete beharko dituzte, bai eta foru arau honetan arautu gabeko arloetan aplikatzekoak zaizkien gainerakoak ere.

4. Enpresa-sektore publikoko partzuergoek, berriz, beren legeria espezifikoan, merkataritza-zuzenbidean, zuzenbide zibilean edo lan arloko zuzenbidean ezarritakoa bete beharko dute, bai eta foru merkataritza-sozietateei berariaz aplikagarri zaizkien foru araudian ezarritakoa ere.

### 4. artikulua. Foru enpresa-erakunde publikoak.

1. Foru enpresa-erakunde publikoak izaera publikodun erakundeak dira, helburutzat prestazioaren inguruko jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioa izan dezaketen interes publikoko ondasunak ekoiztea dutenak.

   Foru enpresa-erakunde publikoak zuzenbide pribatuaren arabera arautzen dira, bere organoen borondatea eratzerakoan, atxikita dituzten administrazio-ahalmenak egikaritzerakoan eta bere estatutuetan eta ezargarria den gainerako arautegian horientzako araututa dauden alde berezietan izan ezik.

2. Foru enpresa-erakunde publikoak foru arau baten bidez sortu eta iraungiko dira.

   Erakunde bat iraungitzeko ez da beharrezkoa izango arau berezi bat, baldin eta sortzeko arauan edo besteren batean iraungipenaren arrazoiak eta berau burutzeko prozedurak zehaztu badira.

Bere barne arau edo estatutuetan edozein aldaketa egiteko aldez aurretik Foru Aldundiak onartu egin beharko du. Onartutako aldaketen berri eman beharko zaie Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusiei.

3. Foru enpresa-erakunde publikoen aurrekontu-araubidea, ekonomia- eta finantza-araubidea, kontabilitatearena eta kontrolarena beren beregi ezarri behar zaizkien foru arau honetako xedapenek arautuko dituzte eta, horien kontrakoa ez denean, zuzenbide pribatuak.

## 5. artikulua. Merkataritzako foru sozietateak.

1. Merkataritzako foru sozietateak bere kapitalean foru sektore publikoaren 100eko 50etik gorako partaidetza duten merkataritzako sozietateak dira. Partaidetza hori zehazteko foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek sozietatearen kapitalean dauzkaten partaidetzak, zuzenekoak edo zeharkakoak, hartuko dira kontuan.

2. Merkataritzako foru sozietateak sortu eta iraungitzeko, baita aurreko zenbakian aipatu den gehiengoa duen partaide izaera eskuratu zein galtzeko ere, Foru Aldundiaren erabakia beharko da. Sortzeko espedientea onartzeko honako foru arau honetan aurrekontuak onesteko aurreikusten den dokumentazio bera beharko da.

   Sozietatearen estatutuetan edozein aldaketa egiteko aldez aurretik Foru Aldundiak onartu egin beharko du. Onartutako aldaketen berri eman beharko zaie Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusiei.

3. Merkataritzako foru sozietateak bere legeri bereziaren arabera arautuko dira, baita merkataritza-zuzenbidearen, zuzenbide zibil edo lan-zuzenbidearen arabera eta beren beregi ezarri behar zaien foru arautegiaren arabera ere.

## 5 bis artikulua. Foru fundazioak.

1. Fundazio bat foru fundazioa izango da, baldin eta baldintza hauetakoaren bat betetzen badu:

   a) Fundazio hori eratzerakoan ekarpen nagusia gehiengoa duena, zuzenekoa edo zeharkakoa, Bizkaiko Foru Aldundiak edo Lurralde Historikoko gainerako entitateek egindakoa izatea.

   b) Fundazioaren ondarearen %50 baino gehiago entitate horiek emandako edo lagatako ondasun edo eskubideek osatuta egotea, eta ondare horrek irauteko helburua izatea.

2. Foru Aldundiaren erabakia behar da foru fundazioa eratzeko, estatutuak aldatzeko, fundazioak beste batekin bat egin edo fundazioa azkentzeko, bai eta foru fundazioaren izaera lortzea edo galtzea dakarten egintzak edo negozioak egiteko ere.

   Fundazioa sortzeko espedientea onesteko behar den dokumentazioa foru arau honetan fundazioaren aurrekontuak onartu ahal izateko zehazten den dokumentazio bera da.

   Zenbaki honetako lehenengo lerroaldean zehazten den edozein egintza egiten bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei jakinarazi behar zaie.

3. Foru fundazioak haiei buruzko xedapenek eraenduko dituzte, xedapenok fundazioei berariaz aplikatzeko direnean, eta xedapenon aurkako ez den alderdietan, berriz, zuzenbide pribatuak eraenduko ditu; nolanahi ere, fundazioei buruzko legedia ere aplikatu ahal izango da eta EAEko fundazioei buruzko legean ezartzen den babesletzaren mendean jarri beharko dira.

## II. KAPITULUA.
## ESKUMENAK

### 6. artikulua. Batzar Nagusien eskumenak.

Beste eskumen batzuk gorabehera, ondokoak dagozkie Batzar Nagusiei, honako foru arau honetan araututako arloetan:

a) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak onetsi, horien jarraipena egin eta kontrolatzea.

b) Lurralde Historikoko berezko zergak ezartzea edo eraldatzea.

c) Foru Aldundiaren eta beronen foru erakunde autonomiadunen gastuetarako kreditu gehigarriak ematea.

d) Lurralde Historikoaren ondarea arautzea.

e) Foru erakunde autonomiadunak eta enpresa-erakunde publikoak sortzea.

f) Foru arau honek ematen dizkien gainerako eskumen guztiak.

### 7. artikulua. Foru Aldundiaren eskumenak.

Beste eskumen batzuk gorabehera, ondokoak dagozkio Foru Aldundiari, honako foru arau honen xede diren arloetan:

a) Foru arau hau ezartzeko behar diren xedapenak ematea.

b) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren proiektua onestea, Batzar Nagusietara bidaltzeko.

c) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak prestatzeko gidalerro ekonomiko eta teknikoak onestea.

d) Merkataritzako foru sozietateen sorrera onestea eta, ondoren, horren berri ematea Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusiei.

e) Batzar Nagusiei foru erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak sortzeko proposamena egitea, haiek onar dezaten.

f) Foru fundazioen sorrera onestea, eta, ondoren, horren berri ematea Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusiei.

g) Foru arau honek ematen dizkion gainerako eskumen guztiak.

### 8. artikulua. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren eskumenak.

Beste eskumen batzuk gorabehera, ondokoak dagozkio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, honako foru arau honen xede diren arloetan:

a) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko arauaren aurreproiektua egitea eta berau Foru Aldundiaren onespenpean jartzea.

b) Foru Aldundiari Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak prestatzeko gidalerro ekonomiko eta teknikoak proposatzea, hark onets ditzan.

c) Interesatutako sailak eskatuta, Foru Aldundiari merkataritzako foru sozietateak sortzeko proposamena egitea.

d) Lurralde Historikoaren aurrekontuaren betearazpenaren, finantzen arloko xedapenen betetzearen eta Lurralde Historikoko ekonomi jardueraren barne kontrola eta jarraipena egitea.

e) Foru Ogasunaren eskubideak kudeatzea, dagokion arautegian ezarritakoaren arabera.

f) Interesatutako sailak eskatuta, foru fundazioak sortzeko proposamena egitea Foru Aldundiari.

g) Foru arau honek ematen dizkion gainerako eskumen guztiak.

**9. artikulua. Foru diputatuen eskumenak.**

Beste eskumen batzuk gorabehera, ondokoak dagozkie foru diputatuei, honako foru arau honen xede diren arloetan:

a) Beren Sailen aurrekontuen aurreproiektua egitea eta haiei atxikitako foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuak koordinatzea, Ogasun eta Finantza Sailera bidaltzeko.

b) Sailari esleitutako kredituak ordaintzeko baimena eman, gastua xedatu, betebeharra onartu eta proposamena egitea, indarrean dagoen arautegian ezarritako prozedurei jarraituz eta foru arau honetan xedatzen dena gorabehera.

c) Sailaren berezko jarduerak eragindako zergen arloko sarreren likidazioa tramitatu eta proposatzea.

d) Sailaren berezko jarduerak eragindako zergen arlokoak ez diren sarreren likidazioa tramitatu eta proposatzea.

e) Sailari atxikitako foru sektore publikoko erakundeak babestea.

f) Foru arau honek ematen dizkien gainerako eskumen guztiak.

**10. artikulua. Foru erakunde autonomoen, foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen eskumenak.**

1. Beste eskumen batzuk gorabehera, ondokoak dagozkie foru erakunde autonomiadunei, honako foru arau honen xede diren arloetan:

    a) Aurrekontuaren aurreproiektuaren proposamena egitea.

    b) Beraien aurrekontuen betearazpenari dagozkion gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea.

    c) Beraien eskubide ekonomikoak kudeatzea.

    d) Foru arau honek ematen dizkien gainerako eskumen guztiak.

2. Era berean, eta beste eskumen batzuk gorabehera, foru arau honen xede diren arloetan honako eskumen hauek ondokoak dagozkie enpresa-erakunde publikoei, merkataritzako foru sozietateei eta foru erakundeei:

    a) Erakundeon aurrekontuaren aurreproiektuaren proposamena egitea.

    b) Erakundeon sarrerak kudeatzea eta biltzea.

    c) Erakundeon jarduerari ekiteko behar diren gastuak eta ordainketak egitea.

    d) Foru arau honek ematen dizkien gainerako eskumen guztiak.

# I. TITULUA.
# BIZKAIKO FORU OGASUNAREN ARAUBIDEA.

## I. KAPITULUA.
## PRINTZIPIO OROKORRAK.

### 11. artikulua. Bizkaiko Foru Ogasuna.

1. Bizkaiko Foru Ogasuna, foru arau honen ondoreetarako, eduki ekonomikoa duten eta Foru Aldundiaren edo beraren foru erakunde autonomiadunen titulartasunekoak diren eskubide eta betebehar guztiek osatzen dute.

2. Foru Ogasuna foru arau hau, ekitaldi bakoitzeko Lurralde Historikoaren aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak eta ezargarriak diren gainerako xedapen guztiek arautuko dute.

### 12. artikulua. Bizkaiko Foru Ogasunaren prerrogatibak.

Foru Ogasunak Estatuko Ogasunak dituen ahalmen eta prerrogatiba berdinak izango ditu.

## II. KAPITULUA.
## ESKUBIDE EKONOMIKOAK

### 13. artikulua. Foru Ogasuna osatzen duten eskubideak.

1. Foru Ogasunaren eskubideak izaera publikoko eta izaera pribatuko eskubideak izan daitezke.

2. Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideak administrazio-ahalmenak gauzatzearen ondorioz Foru Aldundiaren edo bere foru erakunde autonomiadunen titulartasunekoak diren zergak eta eduki ekonomikoko gainerako eskubideak dira.

3. Foru Ogasunaren izaera pribatuko eskubideak administrazio-ahalmenik izan gabe jarduten dutenean Foru Aldundia edo bere foru erakunde autonomiadunen titulartasunekoak diren eskubideak dira.

### 14. artikulua. Izaera publikoko eskubideak.

Ondokoak dira izaera publikoko eskubideen iturriak:

a) Lurralde Historikoko zerga sistema osatzen duten zergak.

b) Prezio publikoak.

c) Zorpetze-eragiketak.

d) Beste erakunde publikoen transferentziak eta diru-laguntzak.

e) Foru Aldundiak edo bere foru erakunde autonomiadunek jarritako isunak eta gainerako zehapenak.

f) Izaera publikoko eskubideengan eragindako kalte-galeren ordainak.

g) Zuzenbide publikoko sarrerei dagozkien errekarguak eta interesak.

h) Diru-laguntzen itzulketak, horien itzulketa Foru Aldundiaren edo bere foru erakunde autonomiadunen aldekoa denean.

i) Ahalmen publikoen bidez burutzen diren harreman eta egoera juridikoen ondorio den beste edozein eskubide.

**15. artikulua. Izaera pribatuko eskubideak.**

Ondokoak dira izaera pribatuko eskubideen iturriak:

a) Foru Aldundiaren edo bere foru erakunde autonomiadunen jabetzako ondasunak erabiltzeak edo erabilgarri izateak eragindako edozein izaerako etekin edo produktuak; baita erakunde horien titulartasuneko eskubide erreal edo pertsonalak, horien balorazio ekonomikoa egin daitekeenean, baldin eta erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez badaude.

b) Jaraunspen, legatu edo dohaintza gisa egindako eskuraketak.

c) Zuzenbide pribatuko harremanen juridikoen ondorio den beste edozein eskubide.

**16. artikulua. Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideen araubide juridikoa.**

1. Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideak kapitulu honetan eta ezarri ahal zaizkien arau berezietan jasotakoak arautuko dituzte.

2. Zergen aplikazioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, bere iturri-sistemarekin bat etorriz, xedatutakoa beteko du.

**17. artikulua. Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideen sorrera, eskuraketa eta iraungipena.**

1. Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideak horietako bakoitza arautzen duen arautegian ezarritakoarekin bat etorriz eskuratu eta sortzen dira.

2. Foru Ogasunaren izaera publiko eskubideak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako arrazoiengatik eta ezarri ahal zaizkien foru arauetan eta legeetan aurreikusitako gainerakoengatik iraungiko dira.

   Foru arau honetan eta eskubide bakoitza arautzeko arautegian ezarritakoa gorabehera, Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideak iraungitzeko moduen prozedurak, ondorioek eta betekizunek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian ezarritakoa bete beharko dute.

**18. artikulua. Foru Ogasunaren eskubideen administrazioa.**

1. Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-baliabideen administrazioa eta eskubide ekonomiko guztien bilketa Ogasun eta Finantza Sailari dagokio, ezargarria den arautegian xedatutako kontrolarekin.

2. Dena den, sailen edo foru erakunde autonomiadunen jarduketei dagozkien sarrera guztien administrazioa horien titularra den sail edo erakundeak burutuko du, eta eskumena izango dute zergen alorrekoak ez diren sarreren likidazioak egiteko.

   Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduz, baimena eman ahal izango zaie gainerako foru sailei edo foru erakunde autonomiadunei, zergen arlokoak ez diren zuzenbide publikoko zenbait baliabideen bilketa kudeatzeko.

3. Bizkaiko Foru Ogasunaren eskubide ekonomikoen administrazioaren ardura duten pertsona edo erakundeak beti egongo dira Ogasun eta Finantza sailaren kontrolaren menpe.

4. Izaera publikoko fondoak edo baloreak erabili edo zaintzen dituzten pertsona eta erakundeei fidantza jartzeko eskatu ahal izango zaie, arauzko xedapenetan zehaztutako zenbatekoan eta eran.

### 19. artikulua. Foru Ogasunaren eskubideen mugak .

1. Foru Ogasunaren eskubide ekonomikoak ezin izango dira besterendu, kargatu edo errentatu, foru arauetan eta legeetan aurreikusitako egoeretan izan ezik.

2. Foru Ogasunaren eskubideen ordainketan ez da salbuespen, barkamen, beherapen edo luzamenduri emango, foru arauetan eta legeetan zehaztutako egoeretan eta eran ez bada, foru arau honetako 25. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

3. Foru arau honetako 20. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, ezin izango da ezer adostu ez judizioz, ezta judizioz kanpo. Eta horien gaineko eztabaidak ezin izango dira arbitraje bidez ebatzi, Foru Aldundiaren erabakiz baizik, foru arau berezietan ezarritakoa salbu.

### 20. artikulua. Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideen prerrogatibak.

1. Arautzen dituen arautegiak izaera publikoko eskubide bakoitzarentzat ezarri dituen prerrogatibak gorabehera, eskubide horiek administrazio prozedurekin bat etorrita eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian zergetarako ezarritako prerrogatibekin kobratuko dira.

2. Izaera publikoko eskubideei dagozkien premiamendu probidentziak, eskumena duten organoek luzatutakoak, nahiko izango dira premiamenduzko prozedurari ekiteko eta epaitza batek duen betearazpen-indarra izango dute ordaindu behar duten horien ondasun eta eskubideen kontra ekiterakoan.

3. Foru Ogasunaren kredituen izaera pribilegiatuak abstentzio eskubidea ematen dio Foru Ogasunari konkurtso-prozesuetan. Hala ere, Foru Ogasunak, prozesu hauetan, konkurtso-legedian ezarritako akordioak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, baita, zordunarekin bat etorriz eta egokitzat jotzen diren bermeekin, ordaintzeko baldintza bereziak adostu ere. Baldintza hauek ezin izango dira prozesu judizialari amaiera ematen dion hitzarmenean edo akordioan jasotakoak baino onuragarriagoak izan zordunarentzat. Halaber, kreditu horiek konpentsatzea erabaki dezake, diru-sarrera publikoak arautzen dituen arautegia ezarritakoaren arabera.

   Aurreko lerroaldean aipatutako akordioak eta hitzarmenak sinatu eta gauzatzeko Ogasun eta Finantza Saileko titularraren baimena beharko da.

### 21. artikulua. Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoen gerorapena edo zatikapena.

1. Zuzenbide publikoko harreman juridiko bat dela bide Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoak geroratu edo zatikatu ahal izango dira, eta dagokion berandutza-interesa sortuko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian edo ezargarria den arautegi berezian araututako kasuetan, bertan ezarritako bideak eta prozedura erabilita.

2. Ogasun eta Finantza Saileko titularrak baldintza bereziak ezarri ahal izango ditu geroratutako zerga zorren eta zuzenbide publikoko gainerakoen errekargu eta interesei dagokienez, egoerak halakoa behar duenean.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritako kasuetan eta baldintza berdinekin, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak zuzenbide pribatuko harreman juridiko baten ondorioz zor diren zenbatekoen gerorapena eta zatikapena onartu ahal izango du, baita horiei ezarri ahal zaien interes-tasa zehaztu ere.

### 22. artikulua. Zorren konpentsazioa.

1. Arauz ezartzen diren kasuetan eta ezarritako betekizunekin, bilketaren borondatezko fasean, zein betearazpenekoan, Foru Ogasunaren aldeko izaera publikoko zorrak osorik

edo partzialki konpentsazioz iraungi ahal izango dira, Foru Ogasunak zordunarentzat aintzatesten dituen kredituekin.

Halaber, aurreko paragrafoan jasota ez dauden zorrak konpentsatu ahal izango dira ere, zergak eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideak arautzen dituzten arauek aurreikusita dutenean.

Zenbateko osoa edo horren zati bat sartuta daukan likidazio bat deuseztatu eta berau beste batek ordezkatzen duenean, aurretiaz sarturik dagoen kopuruan gutxitu ahal izango da.

2. Autonomi erkidegoek eta toki-korporazioek Foru Aldundiarekin dituzten zorrak konpentsazioz iraungitzeko bere legeria berezia bete beharko da.

3. Erakunde autonomiadunek edo zuzenbide publikoko beste edozein erakundek Foru Aldundiarekin dituzten zorrak konpentsazioz iraungi ahal izango dira, zor mugaeguneratuak, likidoak eta galdagarriak direnean.

### 23. artikulua. Foru Ogasunaren eskubideen preskripzioa.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta baliabide ezberdinak arautzen dituzten xedapenetan ezarritakoa gorabehera, Foru Ogasunaren ondoko ahalmenen egikaritzeak lau urteren buruan preskribatuko du:

    a) Bere aldeko kredituak onartzeko edo kitatzeko; epe hori eskubidea gauzatu ahal izan zen lehenbiziko egunetik zenbatuko da.

    b) Onartu edo kitatu diren izaera publikoko kredituak kobratzeko; kasu honetan epea jakinarazpenaren datatik edota, jakinarazpen hori aginduzkoa ez balitz, mugaegunetik zenbatuko da.

2. Foru Ogasunaren eskubideen preskripzioa Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz etengo da eta ofizioz ezarriko da.

3. Izaera pribatua duten eskubideen preskripzioa antolamendu juridiko pribatuak arautuko du.

4. Preskribatutzat jo diren Foru Ogasunaren eskubideei baja emango zaie dagozkien kontuetan, aldez aurretik bidezko espedientea tramitatuta.

5. Foru Ogasunaren eskubideen preskripzioak eragin ditzaken erantzukizunak aitortu eta eskatzeko kontabilitate-erantzukizuna arautzen duen arautegian ezarritakoa bete beharko da.

### 24. artikulua. Berandutza-interesak.

1. Izaera publikoko eskubideak direla bide Foru Ogasunari zor zaizkion kopuruek bere mugaegunaren biharamunetik sortuko dituzte berandutza-interesak.

    Paragrafo honen barruan sartuta daude erakunde laguntzaile, kontu murriztu, kitatzeko bulego eta Ogasunaren kontura zergak biltzen dituzten gainerako erakundeen bidez biltzen diren zenbatekoak, erakunde horiek zenbatekook ezarrita dauden epeetan Foru Diruzaintzan sartzen ez dituztenean.

2. Interesak kalkulatzeko horiek sortutako epealdian indarrean dagoen legezko interes-tasa aplikatuko da.

3. Aurreko paragrafoan ezarri dena gorabehera, zerga izaera duten zorrei dagozkien interesak kalkulatzeko, aplika daitekeen berandutzagatiko interes-tasa Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera ezarritakoa izango da. Halaber, dirulaguntzen arloko interesak kalkulatzeko, ezar daitekeen berandutzagatiko interes-tasa Diru-laguntzen Foru Arauan xedatutakoaren arabera ezarritakoa izango da.

### 25. artikulua. Munta txikiko eskubide ekonomikoak.

Ogasun eta Finantza Saileko titularrak honakoak arautu ahal izango ditu:

1. Ordainarazpen eta bilketaren gastua betetzeko gutxiegitzat jotako zenbatekora heltzen ez diren zorrek eragiten dituzten likidazioak ez egitea, beti ere zorraren izaerari buruzko irizpideak kontuan hartuta.

2. Oro har, zordun berari dagozkion zor guztiak deuseztatzea eta kontabilitatean baja ematea, zordun horrek zorrean duen zenbateko guztia bilketaren eraginkortasuna eta kostuaren irizpideak kontuan hartuta zenbatetsi eta ezarri den muntara heltzen ez denean.

### 26. artikulua. Izaera pribatuko eskubideen eraginkortasuna.

Foru Ogasunaren izaera pribatuko eskubideak zuzenbide pribatuko arau eta prozedurekin bat etorrita erabiliko dira.

## III. KAPITULUA.
## BETEBEHAR EKONOMIKOAK.

### 27. artikulua. Betebeharren iturriak.

Foru Ogasunaren betebeharrak foru arauetatik eta ezarri ahal zaizkien legeetatik, negozio juridikoetatik eta, zuzenbidearen arabera, sorrarazten dituzten egintza edo gertaeretatik sortzen dira.

### 28. artikulua. Betebeharren galdagarritasuna.

1. Foru Ogasunaren betebeharrak honakoetan baino ez dira galdagarriak: aurrekontuen betearazpenaren ondorio direnean, foru arau honetan xedatutakoarekin bat etorriz, baita epai irmo edo legez baimendutako aurrekontutik kanpoko eragiketen ondorio direnean.

2. Betebeharren jatorria prestazioak edo zerbitzuak badira, ordainketa ezin izango da egin hartzekodunak ez badu bere betebehar korrelatiboa bete edo bermatu.

### 29. artikulua. Erakunde-betebeharrak.

Foru Ogasunaren erakunde-betebeharrak Foru Aldundiak honakoekin bete behar dituenak dira:

a) Estatuko Administrazioarekin, Ekonomi Itunaren II. Kapituluan eta kupoa zehazteko metodologia ezartzeko bosturteko legeetan xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeekin edo gainerako foru aldundiekin, Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean eta baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomi Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin behar dituzten ekarpenak zehazteko metodologia onartzen duten legeetan xedatutakoa betez.

c) Lurralde Historikoko udalekin, Foru Aldundiak une bakoitzean horien gainean gauzatzen dituen finantza-babesaren arloko ahalmenak garatzerakoan.

### 30. artikulua. Betebeharren iraungipena.

1. Foru Ogasunaren betebeharrak Kode Zibilean eta antolamendu juridikoan jasotako arrazoiengatik iraungitzen dira.

2. Foru Ogasunaren betebeharrak iraungitzeko aurrekontuko kredituen kudeaketa foru arau honetako II. tituluan eta hori garatzeko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz egingo da.

### 31. artikulua. Prerrogatibak.

1. Eta administrazioko agintaritzak ezin izango dute ondare ondasunen eta eskubideen aurkako enbargu-eginbiderik eman ezta betearazpenik erabaki materialki zerbitzu publiko bati edo funtzio publiko bati lotuta daudenean, horien etekinak edo bere besterentzearen produktua legez xede ezberdinetara lotuta daudenean edo politika publikoak gauzatu edo interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten merkataritzako foru sozietateen balore edo titulu adierazgarriak direnean.

2. Foru Ogasunaren ardurapeko betebeharren bat ekarriko duten epailearen ebazpenak betetzea arlo horretan gaitasuna duen administrazio organoaren ardura izango da, indarrean dagoen legeriarekin bat datorren beste edozein betearazpen bideren bat eskatzeko aukera eragotzi gabe.

3. Betetzeaz arduratutako administrazio organoak dagokion kredituaren kargura ordaintzea erabakiko du, dagokion aurrekontuan ezarritako eran eta mugen barruan. Ordainketa egiteko aurrekontuan aldaketaren bat egin behar bada, dagokion prozedura epailearen ebazpena jakinarazten den egunaren ondoko hiru hilabeteen barruan amaitu beharko da.

4. Foru Ogasunaren betebeharrak beteko direla bermatzeko ezin da fidantzarik ezta beste inolako garantiarik ere eskatu.

### 32. artikulua. Interesak.

1. Foru Ogasunak ezarri diren epeetan ordaindu ez dituen zenbatekoek interesak sortuko dituzte aipatu den epe horren mugaegunaren biharamunetik hasita eta ordainketa-proposamena egin arte.

   Ordainketa egiteko epea, arau zehatz batek kontrakoa ezartzen duenean izan ezik, aurretiaz hartzekodunarekin adostutakoa izango da edo, bestela, betebeharraren onespena edo lehenengo ebazpen judiziala jakinarazi zen egunaren biharamunetik zenbatuta, ondoz ondoko hiru hilekoa.

2. Interesak kalkulatzeko foru arau honetako 24. Artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa ezarriko da.

3. Zergen, administrazioko kontratuen, nahitaezko desjabetzearen eta diru-laguntzen arloan bere arautegi berezian xedatutakoa ezarriko da.

### 33. artikulua. Betebeharren preskripzioa.

1. Foru arauetan edo lege berezietan bestelakorik ezarri ezean, lau urteren buruan preskribatuko dute:

   a) Dagozkion frogagiriak aurkeztu gabe eskatutako edozein betebehar Foru Ogasunak onartu edo likidatzeko eskubideak. Epe hori betebeharra sortu duen zerbitzua edo prestazioa bukatu zenetik edota eskubidea gauzatzeko aukera egon zen egunetik zenbatuko da.

   b) Onetsita edo likidatuta dauden betebeharren ordainketa eskatzeko eskubideak, baldin eta legezko hartzekodunek edo horien eskubidedunek eskatu ez badute. Epea dagokion betebeharraren onespen edo likidazioaren jakinarazpena egin den egunetik zenbatuko da.

2. Lehen adierazitako arau edo lege bereziak daudenean izan ezik, preskripzioa Kode Zibileko xedapenen arabera etengo da.

3. Preskribatu egin duten Foru Ogasunaren kargurako betebeharrei baja emango zaie dagozkien kontuetan, bidezko espedientea tramitatu ondoren.

4. Aipatutako edozein betebeharretan gertaturiko preskripzio guztien berri urtero eman beharko zaie Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusiei.

# II. TITULUA.
# BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORRAK

## I. KAPITULUA.
## PRINTZIPIO OROKORRAK ETA AURREKONTU-PROGRAMAZIOA.

### 34. artikulua. Aurrekontu-programazioaren printzipioak eta arauak.

1. Aurrekontu-programazioak urteaniztasun, gardentasun eta efizientziaren printzipioak beteko ditu baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan.

2. Egite eta onartze fasean dauden foru xedapenek, administrazio egintzek, kontratuek, hitzarmenek eta foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen bestelako edozein jarduketek, gastu publikoengan eragina daukatenek, bere ondorioak eta ondoreak baloratu behar dituzte eta aurrekontu-erabilgarritasunaren menpe jarri.

### 35. artikulua. Aurrekontua kudeatzeko printzipioak.

Foru sektore publikoaren kudeaketa Batzar Nagusiek onartutako urteko aurrekontuaren araubidearen menpe egongo da eta honako printzipioak bete beharko ditu:

a) Unibertsaltasunaren printzipioa: Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren barruan likidatzekoak diren eskubide guztiak eta aintzat hartu behar diren betebehar guztiak egongo dira.
Zerga-eskubideen aurrekontuko aurreikuspenek kontuan hartuko dituzte Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako erabakiak.

b) Espezialitate-printzipioa: Aurrekontuko kredituak ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak edo foru arau horren arabera egindako aldaketek baimendutako xede zehatzerako baino ez dira erabiliko.

c) Finantza-orekaren printzipioa: Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak finantza-orekaren printzipioaren arabera egingo dira, diru-sarrera guztiek gastuen zenbatekoa bete dezaten.

d) Osotasun-printzipioa: Eskubide likidatuak eta betebehar onartuak osorik aplikatu zaizkie aurrekontuei eta debekatuta dago betebeharrei likidatu beharreko edo kobraturik dauden eskubideen gutxipenez betetzea, foru arauren batek beren beregi baimentzen duenean izan ezik.

   Aurreko lerroaldean araututakotik kanpo daude epaimahai edo agintaritza eskudunak bidegabekotzat jotako diru-sarreren itzulketak eta sarrera horiek arautzen dituen arautegian aurreikusitakoak, aurrekontuko sarreren ordainketa kautelaz etetea lortzeko jarritako bermeen kostuaren itzulketa, bidegabekotasunaren adierazpena irmoa denetik, eta zergen bilketako partaidetzak, horrela aurreikusita dagoenean ezargarria den arautegian.

   Idatz-zati honen ondoreetarako, zenbateko osotzat joko da bidezko diren salbuespenak eta hobariak ezarri ondoren ateratzen dena.

e) Ez xedemateko printzipioa: foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen baliabideak horiei dagozkien betebehar guztiak betetzeko erabiliko dira, foru arau bidez xede zehatzetara xedematea ezartzen denean izan ezik.

**36. artikulua. Urte anitzeko aurrekontu-egoerak.**

1. Urtero Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak kokatuta daudeneko urte anitzeko aurrekontu-egoerek foru sektore publikoaren jardueraren programazioa osatzen dute. Egoera hauetan oinarrizko aurrekontu-orekak, gastu politiketarako, bakoitzaren helburu estrategikoen arabera, esleitu beharreko sarrera eta baliabideen ustezko bilakaera, eta dagoeneko hartuta dauden gastu-konpromisoak definituko dira.

   Urte anitzeko aurrekontu-egoerak sarreren egoera eta gastuen egoera batek osatuko dituzte, aurrekontua egiteko prozesuan daukan ekitaldiari eta ondorengo hiru ekitaldiei dagokienez.

   Sarreren egoerak kontuan hartuko ditu ekonomiaren joeraren ondorioak, zenbatetsi ahal diren koiuntura-ondorioak eta arautzen dituen arautegian aurreikusitako aldaketek eragindako ondorioak.

   Gastuen egoerak gastu politika ezberdinak gauzatzeko ezarritako lehentasunekin bat etorrita esleituko ditu erabilgarri dauden baliabideak, mugaeguna kontuan hartu beharreko aldian daukaten sektore publikoaren jardueraren ondoriozko betebeharrak eta dauden gastu-konpromisoak aintzat hartuta.

2. Urte anitzeko aurrekontu-egoerak Ogasun eta Finantza Sailak eratuko ditu eta aurreko ekitaldian onartutako egoeretan jasotako aurreikuspenen eguneratzea jasoko dute.

3. Urte anitzeko aurrekontu-egoerek erabilgarri dauden baliabideen sailkako banaketa jasoko dute eta urte anitzeko programetan garatuko dira, egoera hori osatzen duten ekitaldiak aintzat hartuta, eta beren aurreikuspenen arabera doituko dira. Egoera horietan lortu beharreko helburuak eta horiek lortzeko ekintzak zehaztuko dira, baita aurrekontuko programen zuzkidurak ere.

4. Urte anitzeko programak Ogasun eta Finantza Sailera bidaliko dira urtero, urte anitzeko aurrekontu-egoerak presta ditzan.

5. Sail bakoitzeko urte anitzeko programak bere menpeko zentro kudeatzaile guztien programak jasoko ditu eta dagokion foru diputatuak onartuko du.

6. Urte anitzeko programak egiteko prozedura eta egitura Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren agindu bidez ezarriko dira. Bertan Ogasun eta Finantza Sailera bidaltzeko epea eta era ezarriko dira.

## II. KAPITULUA.
## EDUKIA ETA ONARPENA.

## LEHENENGO ATALA.
## XEDAPEN OROKORRAK.

**37. artikulua. Definizioa.**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak dira foru sektore publikoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin behar duen jarduera ekonomikoaren zuzendaritzarako programa eratzen duten erabakien multzoaren agiri bidezko adierazpen formala, finantzen eta kontabilitatearen aldetik.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak, aldi berean, foru baliabideen kudeaketa kontrolatzeko tresna dira.

**38. artikulua. Hedadura subjektiboa.**

1. Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak foru sektore publikoa osatzen duten erakundeei dagozkien aurrekontuek osatzen dituzte.

2. Aurreko zenbakian aipatutako aurrekontuak hauek dira:

   a) Foru Aldundiaren aurrekontua.

   b) Foru erakunde autonomoen aurrekontuak.

   c) Foru enpresa-erakunde publikoen aurrekontuak.

   d) Merkataritzako foru sozietateen aurrekontuak.

   e) Foru fundazioen aurrekontuak.

**39. artikulua. Edukia.**

1. Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektuari honako informazioa erantsi beharko zaio:

   a) Lurralde Historikoaren egoera ekonomikoari buruzko txosten bat.

   b) Aurrekontu orokorren edukia azalduko duen memoria; agiri horretan beren beregi adierazi beharko dira aurreko ekitaldiarekiko dauden aldaketa nagusiak.

   c) Zerga-gastuen aurrekontua.

   d) Foru sektore publikoaren aurrekontu bateratua.

   e) Ekitaldiaren itxieraren zenbatespena, kapituluka eta Sailka; agiri horri aurreko ekitaldian aurrekontuan egindako aldaketak azalduko dituen memoria erantsiko zaio.

2. Aurrekontu orokorretan azaltzen den aurrekontu bakoitzak ondoko hauek eduki behar ditu:

   a) Aurrekontuaren edukia eta, aurrekoarekin erkatuta, horrek dituen aldaketa nagusiak azaltzen dituen memoria, baita aurrekontua egiteko erabili diren irizpideak ere.

   b) Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek gehienez onar ditzaketen betebeharrei aurre egiteko kredituek osatutako gastuen egoera-orria, ezarritako mugekin.

   c) Ekitaldian likidatzea aurreikusi den izaera publiko zein pribatuko eskubideen zenbatespenak osatutako gastuen egoera-orria.

   d) Programen deskripzioa, baita programetaz arduratzen den kudeatzaile bakoitzak ekitaldian lortu nahi dituen helburuen zehaztapena ere.

   e) Urte anitzeko inbertsioei buruzko eranskin bat.

   f) Langileriari buruzko eranskin bat, plantillaren zerrendarekin eta dagozkien ordainsariekin.

**40. artikulua. Denbora-eremua.**

1. Aurrekontu-ekitaldiak bat egingo du egutegiko urtearekin eta horri honakoak egotziko zaizkio:

   a) Urte horretan likidatu diren eskubideak, epealdia edozein delarik.

   b) Hurrengo urtarrilaren 15era arte onartutako betebeharrak, baldin eta aurrekontu-ekitaldia amaitu aurretik eta dagozkien kredituen pentzutan egindako eskuraketa, obra, zerbitzu, prestazio edo gastuei loturik badaude.

2. Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen ekitaldiak bat egingo du egutegiko urtearekin; egin diren eragiketen kontabilitateko aplikatzeko, berriz, sortzapen-data hartuko da kontuan.

**41. artikulua. Sarreren aurrekontua.**

1. Aurrekontuan sartuta dauden zenbatekoak gutxi gorabeherakoak izango dira.

2. Dagokien aurrekontua itxi ondoren egiten diren xede zehatzetarako sarrerak zegokien xede zehatzarekiko lotura galduko dute, aribideko ekitaldiko aurrekontuaren kargurako onarpen eta lotura berria eragotzi gabe.

**42. artikulua. Gastuen aurrekontua.**

Gastuen aurrekontuak honakoak jasoko ditu, foru arau honetan kasu bakoitzerako ezarritako zehaztasunarekin:

a) Aurrekontu-ekitaldiaren kargura onar daitezkeen betebeharrei aurre egiteko beharrezkoak diren ordainketa-kredituak.

b) Ondorengo aurrekontu-ekitaldietan burutu behar diren jardueren finantziaziorako hartutako gastuei aurre egiteko diren konpromiso-kredituak. Hau guztia foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

## BIGARREN ATALA.
## AURREKONTUEN EGITURA

**43. artikulua. Aurrekontu orokorren oinarrizko egitura.**

1. Aurrekontu orokorren egitura honako foru arau honetan Ogasun eta Finantza Sailak ezarri duenaren arabera zehaztuko da; horretarako kontuan hartuko dira foru sektore publikoaren antolakuntza, sarrera eta gastuen izaera ekonomikoa eta sarrera eta gastu horiek bidez eskuratu nahi diren helburu eta xedeak.

2. Ogasun eta Finantza Sailak, aurrekontuaren egiturari dagokionez, Autonomia Erkidegoaren erakunde erkideek erabiltzen dituztenekiko irizpide homogeneoak hartuko ditu aintzat.

3. Hurrengo artikuluetan zehazten diren sailkapenen arabera egituratuko dira foru arau honetako 38. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan adierazitako kasuetako gastu eta sarreren egoera-orriak.

4. Aurrekontuen egiturak bide eman beharko du indarrean dagoen kontabilitate-arautegiaren aplikazio zuzena egiteko, baita ekitaldiko emaitzak argi eta fidagarri aurkezteko ere.

**44. artikulua. Sailkapen ekonomikoa.**

1. Sarreren aurrekontuaren sailkapen ekonomikoan eragiketa arruntak, kapital-eragiketak eta finantza-eragiketak bereiziko dira.

   Eragiketa arruntengatiko sarreren barruan ondokoak bereiziko dira:

   a) Zuzeneko zergak.

   b) Zeharkako zergak.

   c) Tasa eta beste sarrera batzuk.

   d) Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.

e) Ondare-sarrerak.

Kapital eragiketengatiko sarreren barruan ondokoak bereiziko dira:

a) Inbertsio errealen besterentzea.

b) Kapital-transferentziak eta kapital diru-laguntzak.

Finantza-eragiketengatiko sarreren barruan ondokoak bereiziko dira:

a) Finantza-aktiboak.

b) Finantza-pasiboak.

2. Gastuen aurrekontuaren sailkapen ekonomikoan hauek bereiziko dira: eragiketa arruntetarako kredituak, kapital-eragiketetarako kredituak, finantza eragiketetarako kredituak eta ordainketa-kreditu globalaren funtsa.

Gastu arruntetarako kredituen barruan honako hauek bereiziko dira:

a) Pertsonal gastuak.

b) Ondasun eta zerbitzuetako gastu korronteak.

c) Finantza-gastuak.

d) Transferentzia eta diru-laguntza korronteak.

Kapital-eragiketetarako kredituen barruan honako hauek bereiziko dira:

a) Inbertsio errealak.

b) Kapital-transferentziak eta kapital diru-laguntzak.

Finantza-eragiketetarako kredituen barruan honako hauek bereiziko dira:

a) Finantza-aktiboak.

b) Finantza-pasiboak.

Ordainketa globaleko kredituak jasoko du foru arau honetako 53. artikuluan arautzen den kreditu-zuzkidura.

**45. artikulua. Programa, funtzional eta gastu proiektuen araberako sailkapena.**

1. Aurrekontu-programak jasoko dituzte erakunde publikoak bere jardueraren bidez lortu nahi dituen helburuak eta helburu horiek lortzeko jarduerak egiteko behar dituen aurrekontu-kredituak.

2. Programa bakoitzean, programak lortu nahi dituen helburuei, behar dituen giza baliabide eta finantza-baliabideei, egin beharreko jarduerei eta programa gauzatzeko erantzuleei buruzko informazioa bilduko da.

3. Programa bakoitzak lortu nahi dituen helburuak kuantifikatu eta jarraitzeko moduan zehaztuko dira. Helburuak kuantifikatzeko modukoak ez badira, adierazlerik egokienak jarriko dira lortu nahi diren helburuak zenbateraino lortu diren kontrolatzeko.

4. Hala badagokio, gauzatzearen ondoriozko sarrerei buruzko informazioa jasoko da programan; dagokion aurrekontuko sarreren egoera-orrian jasoko dira sarrerok.

5. Sailkapen funtzionalean helburuen arabera sailkatuko dira kredituak. Helburuak kredituak agertzen diren programatik edo, salbuespenez, beren izaeratik ondorioztatuko dira.

6. Gastu proiektu bat aurrekontuko gastu unitate bat da eta oso ondo identifika daiteke, era orokorrean edo zehatzetan, eta horren betearazpena, berdin da aurrekontuko aplikazio baten edo gehiagoko kredituen pentzudan eta ekitaldi batekoa edo gehiagokoa izan daiteke; jarraipen eta kontrol indibidualizatua behar du.

   Gastu proiektu guztiak, berdin da finantzaketa ukitua izan zein ez izan, kode bakarrarekin identifikatuko dira eta bizitza osoan ez da aldatuko.

   Sailkapena eta erregistroa Ogasun eta Finantza Sailari dagokio.

**46. artikulua. Sailkapen organikoa.**

Sailkapen organikoan, ezartzen den antolakuntza-zehaztapen maila erabilita, gastuak kudeatzeko zentroei esleitutako kredituak aurkeztuko dira.

## HIRUGARREN ATALA.
## AURREKONTUAK EGIN ETA ONESTEA

**47. artikulua. Ildo nagusiak.**

Ekitaldiaren lehenengo seihilekoan, Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren proposamena jaso ondoren, hurrengo ekitaldirako aurrekontu orokorrak egiteko ildo ekonomiko eta tekniko nagusiak onetsiko ditu, eta ildo nagusi horien berri emango die sail guztiei. Sailek ildoen berri emango diete beren menpeko erakundeei.

**48. artikulua. Prozedura.**

1. Aurreko artikuluan aipatutako ildo nagusi horiek betetzeko, sail bakoitzak, berariaz ezarritako prozeduran eta epean, sailari berari eta haren mendeko erakundeei dagokien dokumentazio guztia bidaliko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

   Halaber, diru-laguntza izendunei buruzko txosten oso bat bidaliko dute sailek. Txosten horretan, laguntzaren xede zehatza kreditatu behar da, eta zehaztu behar da, era berean, zein diren laguntza hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, eta zein arrazoi dauden ezinezkoa izateko diru-laguntzokin jadetsi nahi diren helburuak lortzeko deialdi publiko bat egitea; hori guztia bat dator Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorrarekin.

2. Ogasun eta Finantza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren aurreproiektua egingo du.

3. Urria baino lehenago Ogasun eta Finantza Sailak, sarreren zenbatespenak eta sailen proposamenak aintzat hartuta, Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorraren aurreproiektua egingo du, eta Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak Foru Aldundiari aurkeztuko dio, aztertu eta, bidezkoa bada, onets dezan.

4. Batzar Nagusien Aurrekontuen proiektua eginda balego goiko aurreproiektua prestatzen denean, aurrekontuen proiektu hori informazio gisa erantsiko litzaioke.

**49. artikulua. Aurrekontu orokorrei buruzko foru arauak.**

1. Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren helburua da foru arau honetako 2. paragrafoko 38. Artikuluan zerrendatutako aurrekontuak onestea; bertan, artikuluak, dagozkien eranskinak eta sarrera eta gastuen aurrekontuak biltzen dira, foru arau honetako 44., 45. eta 46. artikuluetan kredituak zehazteko ezarritako maila erabilita.

2. Lurralde Historikoaren aurrekontuei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauko artikuluetan ondokoak arautu behar dira, berariaz:

   a) Foru sektore publikoko erakundeak zorpetzeko eta sektore publiko administratiboaren erakundeen bermeak emateko mugak eta baldintzak.

   b) Zergetan eragina duten gastu fiskalen zenbatekoa.

3. Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak bere helburua zabaldu ahal izango du Foru Ogasunaren berezko beste gai batzuetara edo Foru Ogasunarekin erlazionaturiko beste gai batzuetara, hala nola, langileen ordainsarien eta aurrekontu orokorrei dagozkien kredituen hartzeko pasiboen araubidera eta aurrekontu orokorrei eta haien gastu publikoa burutzeari buruzko araubidea.

**50. artikulua. Batzar Nagusiei bidaltzea.**

Foru Aldundiak dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen azaroren 1a baino lehenago aurkeztuko du Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Araua, Batzar Nagusien araudian ezarritakoaren arabera aztertu, zuzendu, onetsi, itzuli edo baztertzeko.

## III. KAPITULUA.
## AURREKONTU-KREDITUAK ETA HAIEN ALDAKETAK

### LEHENENGO ATALA.
### AURREKONTU-KREDITUAK

**51. artikulua. Aurrekontu-kredituak.**

1. Aurrekontu-kredituak hau dira: aurrekontu-programetan islatzen diten helburuak jadetsi ahal izateko egin behar diren egintzek nahitaezko dituzten gastuen esleipen indibidualizatuak. Programen arduradun diren unitate kudeatzaileek erabilgarri izango dituzte aurrekontu-kredituok. Kredituak, hain zuzen ere, kasu bakoitzean dagokion programen araberako sailkapen organiko, ekonomiko, funtzional eta proiektuekin bat zehaztuko dira, foru arau honetako 44., 45. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, kredituon betearazpena egoki kontabilizatzeko beharrezkoak diren banakapenak gorabehera.

2. Aurrekontu-kredituak bitan sailkatzen dira: ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak. Lehenengoak indarreko ekitaldiari dagozkio, eta bigarrenek, berriz, baimentzen diren ekitaldiari baino hurrengo beste ekitaldi batzuetan dituzte ondorioak.

**52. artikulua. Ordainketa-kredituak.**

1. Gastuen egoera-orrietan sartuta dauden ordainketa-kredituak kredituok aurrekontuetan baimentzeko izan ziren helburu berberak betetzeko erabiliko dira eta foru arau honetan onartzen diren aldaketekin.

2. Ordainketa-kredituak mugatzaileak izango dira kontzeptuari eta programari dagokionez, ondoko salbuespenekin:

   a) Kapitulua dela-eta mugatzaileak izango dira I. kapituluko -pertsonal-gastuak- gastuei dagozkien ordainketa-kredituak.

   b) Kapitulua eta programa dela-eta mugatzaileak izango dira bai II. kapituluan -ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak- sartutako ordainketa-kredituak, bai interesak, printzipalaren amortizazioa zein zorpetzearen ondoriozko gastuak ordaintzeko erabiliko diren ordainketa-kredituak, bai eta Estatuaren kupoa, Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko ekarpena eta zerga itunduen bilketan duten parte-hartzea dela-eta Lurralde Historikoko udalerriei egin beharreko ekarpena ordaintzeko kontsignatutako zenbatekoak ere.

c) Artikulua eta programa dela-eta mugatzaileak izango dira IV. Kapituluan -inbertsio errealak- sartuta dauden ordainketa-kredituak.

d) Programa dela-eta mugatzailea izango da «Ordainketa globaleko kreditua» programa.

e) Gastu proiektuek adierazteko izaera baino ez dute eta ez dira lotesleak eta horiei esleituta dauden kredituek honako foru arau honetan ezarri diren kredituen lotura orokorra baino ez dute. Dena dela, urte bakoitzeko aurrekontuei buruzko foru arauak lotura maila desberdinak ezar ditzake gastu proiektu bat edo gehiagoren barruan.

Dena dela, jarraian adieraziko diren hauek izaera mugatzailea eta lotarazlea izango dute, onesterakoan duten desagregazio mailarekin:

a) Kreditu zabalgarriek.

b) Kreditu erantsiek.

c) Foru sektore publikoko erakundeen aldeko zuzkidurek.

d) Izendun esleipenek.

e) Izaera, garrantzi edo xede berezia izateagatik ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan beren beregi zehaztuko direnek.

2. Partida berrien gaikuntzaren ondoriozko kredituek artikulu honetako 2. paragrafoan aipatzen den lotura izango dute, eta lotura hori Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baimendu beharko du.

3. Ezin da gastu-konpromisorik ez betebeharrik hartu horien zenbatekoak gastuen egoera-orrian baimendu diren kredituen zenbatekoa gainditzen badu, eta foru arau honen beheragoko mailako xedapenak erabat deusezak izango dira muga hori hausten badute; nolanahi ere, foru arau honetako VI. tituluan arautzen diren erantzukizunak ezarri ahal izango dira. Ordainketa-kredituak konpromiso- kreditua ere zuzkituta duten gastuei buruzkoak badira, kreditu bien zuzkiduraren batuketari dagokion zenbatekoa konprometitu ahal izango da.

4. Onartu diren zehaztapen mailen barruan, gastuak egoki aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontuko partidak sortu ahal izango dira.

5. Aurrekontu-ekitaldiaren azken egunean aurretik aitortuta dauden betebeharrak betetzeko konprometituta ez dauden ordainketa-kredituak erabat deuseztatuko dira, foru arau honetako 40. eta 63. artikuluetan ezarritakoa gorabehera.

### 53. artikulua. Ordainketa globaleko kreditua.

1. Foru Aldundiaren gastuen aurrekontuaren barruan, «Ordainketa globaleko kreditua» programa sartu behar da, beste ordainketa-kreditu batzuen zuzkiduran gerta daitezkeen gabeziei edo zuzkidurarik ez duten behar berriei aurre egiteko, bai eta foru arau honetan xedatzen denaren arabera zabalgarriak diren kredituak finantzatzeko ere.

2. «Ordainketa-kreditu gobala» programaren hasierako zuzkidurak ez du Foru Aldundiaren aurrekontu propioko ordainketa-kredituen guztirako zenbatekoaren % 5 gainditu behar. Aurrekontu propioa kalkulatzeko, aurrekontu osotik kendu behar dira Estatuaren kupoa ordaintzeko kredituak, Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko ekarpena eta zerga itunduen bilketan duten parte-hartzea dela-eta Lurralde Historikoko udalerriei ordaindu beharreko ekarpena.

3. Programa honen kudeaketak ondoko arau edo mugak bete behar ditu:

a) Ezin da zuzenean gasturik baimendu programako kredituen pentzutan.

b) Programako kredituek ezin dute konpromiso-krediturik finantzatu.

c) Programako kredituak gehitu egin daitezke kreditu-deuseztapenen bidez; nolanahi ere, aintzat hartu behar da 64. artikuluan xedatzen dena.

d) Programako kredituak ezin dira kreditu-transferentzien bitartez gehitu.

4. Foru Aldundiaren sailek «ordainketa globaleko kreditua» programatik transferentziak egiteko eskatzen dutenean, eta eskaera horiek ez badiote I. kapituluari eragiten, bada, orduan, eskaera horiek beharkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Transferentzia eskatzen duen foru diputatuak justifikatu egin beharko du aurrekontuko zuzkidura gehitu beharra dagoela eta bere Sailak dituen kredituak ez direla nahikoa gabezia gainditzeko.

b) Transferentzia-eskabidearekin batera, kasuan kasuko gastu-programan sortutako beharrizanen analisia aurkeztuko du, aurrekontuaren betearazpenak helburuen lorpenari begira zenbateko desbideraketak eragingo dituen adieraziko du, eta bere Sailaren kredituen gauzatze maila aurreikusten duen azterlana aurkeztuko du.

**54. artikulua. Kreditu zabalgarriak.**

1. Kredituei zabalgarri kalifikazioa emango zaie baldin eta, hasieran mugatzaileak izan arren, gerora haien zenbatekoa gehitzea badago, ezartzen diren formalitateak bete ondoren, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko foru arauetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen diren mugen eta baldintzen pean.

2. Ordainketa-kredituak zabalgarritzat kalifikatuz gero, aurrekontuko gastuen egoera-orrietan beren beregi kalifikazio horrekin agerraraziko dira.

3. Ondoko kredituak kreditu zabalgarritzat joko dira beti, nahiz eta aurrekontu bakoitzeko gastuen egoera-orrietan beren beregi hala ez agertu:

a) I. kapituluko kredituak, baldin eta gehitu egin behar badira Foru Administrazioaren langileen ordainsari erregimena ezartzearen ondorioz edo izaera orokorreko lege xedapenak, epai ebazpenak edo Foru Administrazioaren eta foru erakunde autonomiadunen zerbitzuko langileei ezar dakizkiekeen gainerako xedapenak direla bide egin beharreko alokairuen aldakuntzen ondorioz; halaber, zabalgarritzat joko dira langileen nahitaezko gizarte aurreikuspenaren araubideari dagozkion betebeharrak betetzeko diren kredituak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onetsi duen maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak eta Autonomia Erkidegoaren Erakunde Erkideen eta haren Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak ezarri dituzten erakunde-konpromisoak betetzeko zuzkidurak.

c) Toki-erakundeei zerga itunduetan duten parte-hartzea dela-eta egiten zaizkien transferentziak.

d) Onartutako zorpetzeari dagokion zorraren zerbitzua.

e) «Ordainketa globaleko kreditua» programako kredituak.

f) Batzar Nagusiak finantzatzeko kredituak.

g) Administrazioko foru erakunde autonomiadunen gastuen aurrekontuko partidak, partida horiek guztira ez badute Aurrekontuaren %5 gainditzen, eta betiere gastuok atxikita dituen Sailak beraien finantzaketa onetsita badu edo, bestela, sarrera propioez finantzatuko badira.

h) Aurreko g) idatz-zatian adierazi dena gorabehera, Foru Administrazioko erakunde autonomiadunen kredituak zabalgarriak izango dira, baldin eta kredituok 73. artikuluko 3. paragrafoan (barne-transferentziak) zehazten diren kopuruak Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzeko badira.

4. Gehitu gabe geratzen diren kreditu zabalgarriak gutxitu egin ahal izango dira; ordutik aurrera, kalifikazio hori galduko dute, eta, ondoren, ezin izango dira berriro ere gehitu. Kreditu horiek Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan onetsitako loturari eutsiko diote.

**55. artikulua. Konpromiso-kredituak.**

1. Konpromiso-kredituak dira ekitaldian zehar konprometitu daitezkeen urte anitzeko gastu guztiak, etorkizuneko ekitaldiei buruzkoak. Kredituok urte anitzeko aurrekontu-egoeran zehaztuko dira.

2. Konpromiso-kredituen egoera-orriak adieraziko du zein den kreditu horietako bakoitzaren zenbateko osoa eta zein diren kreditu hori burutzeko aurreikusita dauden urtekoak eta ekitaldiak.

3. Ez dira konpromiso-kredituen egoera-orrian sartuko ondokoak: pertsonalari, finantza-zamei eta zorpetzearen ondoriozko amortizazioei dagozkien gastuak, ondasunen errentamenduari lotutako konpromisoak eta segidako traktukoen artean iraunkorrak diren gastuak.

4. Konpromiso-kredituok gehienez lau ekitaldiri egotzi ahal izango zaizkio. Ekitaldi bakoitzari inputatzen zaion gastuak ezin du kalkulu-oinarriari hurrengo portzentajeak ezartzearen ondorioz lortzen den zenbatekoa gainditu; portzentajeok dira: lehenengo ekitaldian, ehuneko 70; bigarrenean, ehuneko 60; eta hirugarren eta laugarren ekitaldietan, ehuneko 50. Muga horiek kalkulatzeko oinarria sailaren/erakundearen, programaren eta kapituluaren hasierako kredituari buruzkoa izango da.

5. Konpromiso-kredituek behar bezala egin behar diote erreferentzia, hala denean, konpromiso horiei dagozkien ordainketa-kredituei, ordainketa-kredituok sartuta dauden programen barruan.

6. Hasierako krediturik ez dagoenean eta hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin den gasturen bat egin behar denean eta gastu horretatik hurrengo ekitaldietara zabaltzen diren konpromisoak ondorioztatzen badira, bada, orduan, aurreko 4. paragrafoan zehazten diren mugak ezarriko zaizkio kredituari. Horrela egin behar denean, paragrafo horretan aipatzen diren mugak guztira zenbatuko dira.

7. Foru Aldundiak, bereziki justifikatuta dauden kasuetan, erabaki dezake aurreko 4. paragrafoan zehazten diren mugak aldatzea, urtekoen kopurua gehitzea edo, hasierako krediturik ez dagoen kasuetan, hurrengo ekitaldietan aurre egin behar zaien gastu-konpromisoak har daitezela baimentzea. Horretarako, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak, dagokion sailaren ekimenez, beharrezkoa den proposamena igorriko dio Foru Aldundiari, eta Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak aurretiaz txostena eman behar du.

**56. artikulua. Gastu-espedienteen izapidetze aurreratua.**

1. Gastu-espedienteak, urtekoak zein urte anitzekoak, kontraprestazioa betearaziko den urtearen aurre-aurreko aurrekontu-ekitaldian hasi ahal izango dira.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren itzalpean has daitezen espedienteetan, aipatu gastu-espedientearen izapidetzea hasten den ekitaldiko Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

Alabaina, kontraprestazioaren betearazpena hasiko den aurrekontu-ekitaldiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren proiektua dagoeneko onetsita balego, eskakizuna izango da proiektu horretan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

3. Izapidetze aurreratuko kontratazio-espedienteei dagokienez, administrazio klausula berezien pleguan nahitaez agerrarazi behar da kontratuaren adjudikazioa dagokion ekitaldian kontratuari darizkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren pean geratzen dela.

   Inguruabar horiek agerrarazi beharko dira, halaber, dirulaguntzak edo laguntzak emateko oinarriak arautzen dituzten dekretuetan nahiz diru-laguntza edo laguntzok emateko ebazpenetan.

4. Artikulu honetan xedatzen denaren itzalpean gauzatzen diren gastu-espedienteen administrazio-izapidetzearen ondoreetarako, Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak dagokion ziurtagiria emango du, eta bertan agerraraziko da aurreko paragrafoetan zehazten diren eskakizunak betetzen direla.

5. Aurretiazko kreditu-ziurtagiriak aurrekontu baten kontra ematen dira, eta aurrekontu hori indarrean sartzen denean, beharrezkoak diren kontabilitate-agiriek ordezkatuko dituzte ziurtagiriok, behin betiko gastua egotziko zaien aurrekontu-kredituen pentzutan.

**57. artikulua. Gastuaren betearazpenaren muga.**

1. Kredituei atal honetan ezartzen zaizkien ezaugarri orokorrak gorabehera, muga hauek ezarri ahal izango dira kredituez baliatzeko:

   a) Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuz gero, aurrekontu kredituak erabilezinak direla adierazi ahal izango du, aurrekontu-politika abagune ekonomikoari egokitu beharra dela eta. Horretarako emango duen erabakian banan-banan aipatu beharko ditu erabaki horrek zein kredituri eragiten dien.

      Goian aipaturiko kredituak liberatzeko izapideak kredituok adierazteko ezarrita dauden izapide berberak izango dira.

      Arestian aipaturiko erabakia foru sektore publikoan bete dadin ezarri beharreko neurriak Ogasun eta Finantza Saileko titularrak ezarriko ditu.

   b) Foru Aldundiaren aurrekontuak erakunde autonomoen, erakunde publikoen, merkataritza-sozietateen eta fundazioen aurrekontuak finantzatzeko dituen partiden zenbatekoa gutxituz gero, kasuan kasuko aurrekontu-kredituak gutxipenaren besteko zenbatekoan erabilezinak direla adierazi beharko da, salbu eta gutxipenak ukitzen duen erakundeak sarrera handiagoak dituela egiaztatzen duenean. Aurreko letran adierazitakoaren arabera kreditu batzuk erabilezinak direla erabakitzen bada, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren eskumena izango da zehazteko zein kredituri eragiten dien erabaki horrek; halaber, sail horretako titularraren eskumena izango da kredituok liberatzea, doakion erakunde autonomoak finantzabide gehiago eskuratu izana egiaztatu ahala.

   c) Aurrekontua indarrean jartzen denean edo haren kudeaketa hasita dagoenean jakiten bada Foru Aldundiak lehenago hartutako konpromiso edo betebeharren bat kontabilizatu gabe dagoela, kontrol ekonomikoaren ardura duen organoak, bere kabuz, konpromiso edo betebehar hori behar bezala beteko dela ziurtatzeko adinako kreditua erabilezina dela adierazi ahal izango du.

      Erabilezintasunaren adierazpena dagokion sailari jakinarazi behar zaio, jakitun egon dadin eta atzemandako gabezia konpon dezan. Sail horrek, ados ez badago, desadostasun-espedientea has dezake, foru arau honetako 145. Artikuluko hirugarren zenbakian ezartzen denarekin bat.

2. Xedaezintasuna adierazteak ez du kreditua deuseztatzea ekarriko, baina ezin izango da xedaezintzat jotako saldoaren kargurako gastu baimenik ez transferentziarik erabaki. Ekitaldi bakoitzaren amaieran, ekitaldia itxi baino lehenago, edozein karirengatik xedaezintasun egoeran dauden kreditu guztiak deuseztatu egingo dira.

## BIGARREN ATALA.
## AURREKONTUEN ALDAKETAK

### 58. artikulua. Hasierako kredituen aldaketak.

1. Aurrekontu orokorraren gastuen egoera-orriaren aldaketak honela sailkatu dira:

    a) Gastuen egoera-orrien zenbateko osoa ukitzen ez dutenak: kreditu-transferentzien araubideari egokituko zaizkio.

    b) Gastuen egoera-orrien zenbateko osoa ukitzen dutenak, esaterako:

        - Kreditu erantsiak.
        - Kreditu zabalkuntzak.
        - Kreditu sortarazpenak.
        - Kreditu eransketak.
        - Deuseztapenak.

2. Ondokoak ere aurrekontuaren aldaketak dira:

    a) Kredituen lotura aldatzea.

    b) Langileriaren eranskinean ageri den plantilaren osaketa aldatzea.

    c) Onetsita dauden aurrekontu-programen bitartez lortu beharreko helburuak edo burutu beharreko ekintzak aldatzea.

3. Aldaketarako proposamen guztietan berariaz adierazi behar da bai aldaketak ukitzen dituen kredituak, bai aldaketa justifikatzen duten arrazoiak, bai eta, hala denean, aldaketok dagokien gastu programen betearazpenean duten eragina ere.

### 59. artikulua. Ordainketa-kredituen transferentziak.

1. Gastuen egoera-orriaren aldaketak kreditu-transferentziatzat jo behar dira, baldin eta horien bitartez, eta gastuen egoera-orriaren zenbateko osoa aldatu gabe, zenbateko osoa edo partziala aurrekontu-kreditu batetik bestera aldatzen bada.

2. Kreditu-transferentzia guztien xedea hauetakoren bat izan behar da: kapitulu bereko beste kreditu bat, kapital-eragiketak, finantza-eragiketak edo zabalgarri gisa kalifikaturik daudenak.

3. Kreditu-transferentziek ondoko mugak izango dituzte:

    a) Ez dituzte gehituko aldez aurretik gutxitu egin diren kredituak.

    b) Ez dituzte gutxituko aldez aurretik, transferentzia, zabalkuntza edo kreditu erantsien bitartez, gehitu egin diren kredituak.

4. Kreditu-transferentziak ez dira mugaketa horren pean egongo baldin eta:

a) I. kapituluari badagozkio.

b) III. eta IX. kapituluei badagozkie.

c) Eskumen edo zerbitzuak eskuratu edo lagatzeko, edo Foru Aldundiak onetsitako administrazio-berrantolaketak egiteko egiten badira.

d) «Ordainketa globaleko kreditua» programaren ingurukoak badira.

e) Lazeria publikoa edo antzeko beste gertaeraren bat dela-eta eragindako gastuak ordaintzeko kreditu erantsien artean gertatzen badira.

f) Gastuak kontabilitatean egoki egozten direla bermatzeko beharrezkoak diren moldaketa teknikoen ondorio badira.

g) Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak ezartzen baditu.

**60. artikulua. Kreditu erantsiak.**

1. Hurrengo ekitaldira arte ezin gerora daitekeen gasturen bat Aurrekontuaren pentzutan egin beharra dagoenean eta horretarako krediturik ez badago, edo kreditua, behin foru arau honetan baimendu diren gainerako aldaketak agortuta, nahikoa ez bada, Ogasun eta Finantza diputatuak kreditu erantsia baimentzeko foru arauaren aurreproiektua igorriko dio Foru Aldundiari, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusietako Mahaiari presaz bideratzeko eskatuko dio.

2. Salbuespen gisa, Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, diruzaintzaren aurrerakinak eman ahal izango ditu geroratu ezin diren gastuei aurre egiteko; aurrerakinok proposaturiko kredituaren % 20ra artekoak izango dira gehienez, eta behin kreditu erantsia emateko izapideak hasi eta gero emango dira. Baldin eta Batzar Nagusiek ez badute kreditu erantsia onesten, diruzaintzaren aurrerakinaren zenbatekoa kasuan kasuko sail edo erakundearen kredituen pentzutan eta/edo Foru Aldundiak zehaztuko dituen aurrekontu-kredituen pentzutan kitatuko da.

3. Lazeria publikoa edo salbuespenezko beste gertaeraren bat dela-eta presazko jarduketak egin behar direnean, Foru Aldundiak, guztien interesa zaintzeko, horrelako egoerei aurre egiteko behar adinako kreditu erantsiak baimendu ahal izango ditu foru dekretuen bitartez, eta berehala emango die larrialdietako jarduketa horien berri Batzar Nagusiei, berronets ditzaten.

**61. artikulua. Kreditu-zabalkuntzak.**

Kreditu zabalgarrien kasurako xedatutakoa gorabehera, «Ordainketa globaleko kreditua» programako kredituen zabalkuntzen zenbatekoaren muga diruzaintzako gerakina izango da.

**62. artikulua. Kredituen sorkuntza.**

1. Ekitaldian benetan lortzen diren sarrerek kreditua sortarazi ahal izango dute egoki den gastuen egoera-orrian, benetan lortutako sarrerok Foru Aldundiaren edo foru erakunde autonomiadunen aurrekontuetako sarreren egoera-orrietan aurreikusita ez badaude, edo benetan lortutako sarreren zenbatekoak aurreikusitako zenbatekoa gainditzen badu.

2. Ondoko eragiketen ondoriozko sarrerak kreditua sortaraz dezaketen sarreratzat joko dira; eragiketak dira:

   a) Herri-administrazioek, pertsona naturalek nahiz pertsona juridikoek ekarpenak egitea, Foru Aldundiarekin edo haren foru erakunde autonomiadunekin batera berauen helburu edo xedeekin zerikusia duten gastuak finantzatzeko.

   b) Ondasunak saltzea eta zerbitzuak ematea.

c) Ibilgetuaren besterentzeak.

d) Mailegu-itzulketak.

e) Kalteen medeapena.

f) Diru-laguntzen itzulketa.

g) Ekitaldi itxiei dagozkien itzulketen ondoriozko sarrerak.

3. Eskubideak benetan bildu gabe ezin izango da krediturik sortarazi. Sortarazten den kredituaren zenbatekoa benetan izandako sarreren bestekoa izango da gehienez.

4. Kreditu-sortarazpena soilik egin ahal izango da izaera bereko gastuak ordaintzeko edo sarrera horiek sortarazi zituzten jarduerarekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko diren kredituen kasuan.

5. Aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan benetan lortutako amaierako sarrerek kreditua sortarazi ahal izango dute aurrekontuko gastuen sarrera-orrietan, hirugarren eta laugarren paragrafoetan ezarri diren baldintzen pean, baldin eta amaierako sarrera horiek ez bazeuden aurreikusita ekitaldi horretako aurrekontuko edo indarreko aurrekontuko sarreren egoera-orrietan, edo lortutako amaierako sarrerek arestian aipatu diren aurrekontuetan aurreikusi ziren zenbatekoak gainditzen badituzte.

6. Zor ez zirela ordaindutako kopuruen itzulketen ondoriozko jasotako zenbatekoek, baldin eta kopuru horiek likidazioa eginez kobratuak badira, sarrera sortaraziko dute sarreren aurrekontuan eta kreditua sortaraziko dute gastuen aurrekontuko partidan, betebeharraren aintzatespenak ukitu zuen partidan bertan, hain zuzen ere. Betiere, betebeharrak, ordainketak eta itzulketak, hirurek, aurrekontu-ekitaldi berean gertatu behar dute. Zorraren printzipalaren zioz hartzen diren kopuruek baino ez dute kreditua sortaraziko.

7. Artikulu honetako 2. paragrafoko a idatz-zatiko kasuetan, gastuen aurrekontuan ordainketa-kreditu nahikoa aurreikusten bada kofinantzatutako jarduera egiteko, jasotzen diren sarrerek ez dute kredituen sorkuntzarik sortuko.

8. Sarrerak ibilgetua besterentzearen edo maileguen itzulketen ondorioz sortzen direnean, sorkuntza kapital-eragiketak edo finantza-eragiketak finantzatzeko erabili behar da.

9. Sarrerak ondasunen salmentaren edo zerbitzuak ematearen ondorioz sortzen direnean, sorkuntzak soilik egingo dira besterendutako ondasunak erosi edo ekoiztearen, edo zerbitzua ematearen ondorioz sortu ziren izaera bereko gastuak estaltzea helburu duten kredituetan.

**63. artikulua. Kredituak aurrekontuari eranstea.**

1. Indarreko ekitaldiko Bizkaiko Lurralde Historikoaren Gastuen Aurrekontuari aurreko ekitaldiko aurrekontuaren gastuen egoera-orrietako kreditu hauek erantsi ahal izango zaizkio:

   a) Sarrerek sortarazitako kredituak.

   b) Kreditu erantsiak.

   c) Indarreko gastu-xedapenak babesten dituzten kredituak.

2. Kreditu-eransketak egiteko, aipatutako kredituok betearazpenari dagokionez kredituok agertzen ziren programen jarraipena diren programetan integratuko dira, eta kredituon eransketa sortarazi zuten gastu berberetarako.

3. Eransketa eskatzeko epea hurrengo ekitaldiko otsaileko azken egun baliodunean amaituko da.

4. Erants daitezkeen kredituak hurrengo ekitaldiko apirileko azken egun balioduna baino lehen erantsi behar zaizkie aurrekontuei. Bestela, deuseztatu egingo dira, foru arau honetan xedatuta dagoenez.

5. Kredituak artikulu honen lehenengo paragrafoan xedatukoari jarraiki erantsiz gero, ezin izango dira berriro erantsi ondorengo ekitaldietan.

6. Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren -Udalkutxa- barruan Ustekabekoen zuzkidurarako esleitutako kredituak hurrengo aurrekontuei erantsiko zaizkie, eta ez zaie aplikagarri izango aurreko paragrafoan ezarritako mugapena; horrela egingo da kreditu horiek betebehar onartuei atxikita ez dauden neurrian eta Toki Ogasunei buruz indarrean dagoen foru araudian zehazten diren aurrelikidazioen edo behin betiko likidazioen kalkuluetan, Bizkaiko Foru Aldundiak Fondo horretara egindako ekarpentzat jo badira.

   Aipatu eransketak Fondoa kudeatzen duen Sailaren titularrak eskatuta egingo dira, bidezko izapideak bete ondoren; titular hori izango da haiek baimentzeko eskuduna.

7. Aurreko ekitaldiko kredituak indarrean dagoen ekitaldiari erantsi ahal izango zaizkio, betiere finantzaketa nahikoa badago.

**64. artikulua. Kredituen deuseztapena.**

1. Kredituen deuseztapena da gastuen aurrekontuaren aldaketa bat, aurrekontuko partida bati esleitutako kreditua guztiz edo zati batean gutxitzea dakarrena, eta deuseztapen horrek, besteak beste, diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko xedea izango du.

2. Horretarako, Foru Aldundiak gastuen aurrekontuko edozein kreditu deuseztatu ahal izango du, betiere zuzkidura txikitu edo deuseztatu daitekeela irizten bazaio, txikitze edo deuseztatzea horren ondorioz aurrekontuan jasota dagoen jarduera burutzeari kalte egin barik.

3. Kreditua deuseztatzeko espedienteen izapidetzea deuseztatzeak eragindako Saileko titularrak eskatuta hasiko da, Foru Aldundiaren kasuan, edo, foru erakunde autonomiadunen kasuan, lehendakariak/zuzendariak eskatuta, bere dituen eskumenen arabera, edo, bestela, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak eskatuta.

**65. artikulua. Programen sorrera eta elkarketa.**

1. Foru Aldundiak, foru arau honetan arautzen den aldaketen araubidean oinarrituta, kasuan kasuko gastuen aurrekontuetan jasota ez dauden programa berriak sortzea eta zuzkitzea baimendu dezake.

2. Programen elkarketa da beste programa batean edo batzuetan jasota dauden sarrera eta kreditu guztiak existitzen den beste programa batera aldatzea, baina gastuaren hasierako erabilera mantenduz.

   Foru Aldundiak programak elkartzea baimendu dezake, Ogasun eta Finantza Sailak berak proposatuta edo elkarketa horrek eragindako sailak edo sailek Ogasun eta Finantza Sailari aurretik hala eskatuta, betiere administrazioa berrantolatzeko edo gastuen betearazpenaren eraginkortasuna hobetzeko arrazoiek elkarketa egitea justifikatzen badute.

3. Programen sorrera eta elkarketa Batzar Nagusiei jakinarazi behar zaie, sorrera eta elkarketa onesten denetik hilabeteko epean.

## HIRUGARREN ATALA.
## AURREKONTUEN ALDAKETEN IZAPIDETZEA

### 66. artikulua. Aurrekontuen aldaketen izapidetzea.

1. Aurrekontuetan egin nahi diren aldaketen izapideak aldaketa eskatzen duen saileko titularra edo foru erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan. Jatorrian eta helburuan I. kapituluko kredituei eragiten dieten aldaketen kasuan izan ezik, beste edozein aldaketa egiteko eskatzen denean azaldu egin behar da zein diren aldaketa justifikatzen duten arrazoiak, zein eragin izango duen aldaketak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan -hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodifikatzea eguneratu beharko da-, baita aldaketa horrek emaitzetan eta aurrekontu-egoeretan zein eragin izango duen ere.

2. Aldaketa egiteko eskabidea organo eskudunaren onespenpean jarriko da, behin fiskalizazio txostena eman ondoren.

3. Aurrekontuak aldatu aurretik, nahitaezkoa da Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak txostena ematea.

4. Foru erakunde autonomo, foru enpresa-erakunde publiko, merkataritzako foru sozietate eta foru fundazioentzako kredituak aldatzeko eskabideak izapidetu ahal izateko, aldaketa hori eskatzen duen sailak informazio nahikoa bidali behar du, bai aurrekontuei buruzkoa bai kasuan kasuko erakundearen finantza egoera-orriei buruzkoa -kasu bakoitzean dagokiona-, eta informazio horretan jaso behar da zer eragin izango duen proposatutako aldaketa horrek.

5. Arestian adierazi diren aldaketen espedienteak direla-eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren eta gainerako foru diputatuen artean sor litezkeen ezbaiak Foru Aldundiak ebatziko ditu.

### 67. artikulua. Eskumenak bereganatzearen edo lagatzearen ziozko aldaketa.

1. Foru Aldundiak Estatuarengandik edo Autonomia Erkidegoko erakunde erkideengandik eskumen edo zerbitzu berriak bereganatuz gero, behar diren kredituak zuzkituko dira bereganatzeak dakartzan betebeharrei eta eskubide ekonomikoei aurre egiteko. Zuzkidura berri horiek ezin izango dira transferentzia bidez gutxitu.

2. Foru Aldundiak eskumen edo zerbitzuren bat lagatzen duenean, baldin eta lagatzeko erabakia hartzen denerako transferentzia gauzatu behar den urteko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak jadanik onetsita badaude, kasuan kasuko gastuen eta sarreren egoera-orriak aldatu egingo dira.

### 68. artikulua. Foru Aldundiaren eskumenak.

Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, eragiketa hauek baimendu ahal izango ditu:

a) Partida izendunak ukitzen dituzten transferentziak.

b) Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak eskaturik izapidetzen diren deuseztapenaren ziozko bajak.

c) Kreditu-transferentziak, proposatzen den jatorrizko partida zabalgarria denean.

### 69. artikulua. Foru diputatuen eta foru erakunde autonomoen lehendakarien eta zuzendarien eskumenak.

1. Ogasun eta Finantza Saileko titularrak, bere Sailaren eta horren menpeko foru erakunde autonomiadunen kredituen gainean dituen eskumenez gainera, aurrekontuaren aldaketa hauek baimendu ahal izango ditu, ukitutako sailetako foru diputatuek eskatuz gero:

    a) Kreditu-zabalkuntzak.

    b) Kreditu-eransketak.

    c) Kreditu-sortarazpenak.

    d) Ukitutako Sailak proposaturik izapidetzen diren deuseztapenaren ziozko bajak.

    e) Jatorria VI. Kapituluan duten kreditu-transferentziak, horien helburua Aurrekontuaren beste kapitulu batzuk badira.

    f) Kreditu-transferentziak, jatorrizko partidak lotura orokorraren ordez bestelako lotura zehatzen bat duenean.

    g) Hainbat Foru Sail ukitzen dituzten kreditu-transferentziak, programa barrukoak edo programen artekoak, ukitutako sailetako foru diputatuek proposatzen dituztenean.

    h) Jatorria «Ordainketa globaleko kreditua» programan duten transferentziak.

    i) Aurrekontuaren egituraren barruko epigrafeak sortzea, bertan aurreikusi ez diren beharrizanak sortzen direnean.

    j) Diru-izendapen izendunei ez dagozkien partiden lotura aldatzea.

    k) Aurrekontuaren gainerako aldaketak, foru arau honetan Foru Aldundiaren beste organo batzuei esleitu zaizkienak eta Batzar Nagusiei dagozkienak izan ezik.

2. Sail guztietako foru diputatuek eta foru erakunde autonomoetako lehendakariek/zuzendariek, beren eskumenen eremuan, norberaren sail edo foru erakunde autonomoaren gastu-programetako kredituen arteko transferentziak baimendu ahal izango dituzte, honako kasu hauetan izan ezik:

    a) Kredituak VI. kapitulukoak izan eta beste kapitulu batzuetarako erabiltzen direnean.

    b) Kredituek foru erakunde autonomoen, foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen finantzaketari eragiten diotenean.

    c) Aurrekontu orokorrei buruzko Foru Arauan lotura zehatza dutela esleituta daudenean.

    d) Partida zabalgarriak gutxitzen dituztenean.

3. Programen jarduketa-ildoetako aldaketen ondorioz helburuen lorpenean eta ekintzen buruketan, zein beraiei dagozkien adierazleen kuantifikazioan gertatuko omen diren aldakuntzak foru agindu bidez eskuetsiko dituzte aldaketak ukitutako Saileko titularrak edo foru erakunde autonomiadunetako lehendakariek edo zuzendariek; eta dokumentazioa igorri beharko zaio Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari, egoki kontabilizatu dadin.

4. Partidak habilitatzeko eskumena kasuan kasuko foru diputatuak izango du Foru Aldundian, eta lehendakariek/zuzendariek, berriz, foru erakunde autonomiadunetan.

5. I. kapituluari eragiten dioten kreditu-transferentziak, ukitutako programak edozein direla ere, Foru Aldundiko langileak kudeatzeko ardura duen Sailak baimenduko ditu, eta foru erakunde autonomiadunen kasuan, berriz, lehendakariek/zuzendariek.

## LAUGARREN ATALA.
## AURREKONTUEN KUDEAKETA, BETEARAZPENA ETA LIKIDAZIOA

### 70. artikulua. Sarreren aurrekontuaren kudeaketa.

1. Sarreren aurrekontuaren kudeaketak hurrenez hurrengo edo aldi bereko fase hauek izango ditu:

    a) Eskubidearen aintzatespena.

    b) Eskubidearen iraungipena.

2. Eskubidearen aintzatespena deritzon ekintzaren bitartez, baliabide zehatz bakoitzari ezar dakiokeen arautegiaren arabera, Foru Aldundiarentzako edo haren foru erakunde autonomiadunentzako kreditua badagoela adierazten da, eta kreditu hori zenbatekotu egiten da.

3. Eskubidearen iraungipena eskubidea eskudirutan, gauzaz edo konpentsazio bidez kobratzen denean gerta daiteke.

4. Bestelako kariengatiko eskubide-iraungipenek kontabilizazio berezia izango dute: likidazioaren deuseztapenak, preskripzioak, barkapenak eta bestelako kariek eragindakoak bereiztuko dira.

    Sarreren itzulketak ordainketa egiten den aurrekontu-ekitaldiari egotziko zaizkio.

### 71. artikulua. Sailen sarrerak.

1. Sailen jarduketei dagozkien sarrera guztiak horien titularra den Sailak kudeatuko ditu, arau bidez zehaztuko den eran.

2. Zergen arlokoak ez diren sarreren likidazioa egiteko eskumena Saileko foru diputatuak izango du. Zergen arloko sarreren likidazioa eta sarrera guztien bilketa Ogasun eta Finantza Sailaren eskumenekoak izango dira.

### 72. artikulua. Kredituen birjarpena.

Zor ez zirela ordaindutako kopuruak itzuliz gero, itzulketak dakarren sarreraz kreditua birjarriko da, sarreraren benetako zenbatekoan, betebeharraren aintzatespenak ukitu zuen aurrekontu-kreditu berean, baldin eta betebeharraren aintzatespena, ordainketa eta itzulketa, hirurak, aurrekontu ekitaldi berean gertatzen badira.

### 73. artikulua. Foru sektore publikoaren barne-transferentziak.

1. Foru Aldundiaren Aurrekontuan Batzar Nagusien Aurrekontua finantzatzeko xedearekin ezartzen diren kredituak Batzarren Mahaiak eskatu ahala irmo igorriko dira.

2. Foru Aldundiaren Aurrekontuko kredituen destinoa erakunde autonomoen, enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen finantzaketa bada, kredituok irmo libratuko dira, egin beharko diren ordainketei aurre egiteko beharrezkotzat joko den zenbatekoan, finantza-beharrizanen arabera eta horretarako arauz ezarritako prozedurarekin bat.

3. Baldin eta kreditua aurreko paragrafoan adierazitako eran igorri ondoren, sarrera eta gastuen betearazpen-orriak aztertu eta kredituaren zenbatekoa kredituak estali behar zituen gastuen benetako zenbatekoa baino handiagoa dela ikusten bada, Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak gaindikina itzultzeko eskatu ahal izango dio kreditua jaso duen foru sektore publikoko erakundeari.

### 74. artikulua. Besterekin finantzatutako proiektuak.

Beste erakunde publiko edo pribatuekin batera finantzatutako gastuak direla eta, gastu bakoitza betearazten duen Foru Sailak, urtero, gastuari buruzko txosten ekonomikoa gertatuko du, eta azalpen memoriarekin batera Ogasun eta Finantza Sailari igorriko dio.

### 75. artikulua. Gastuen aurrekontuaren kudeaketa.

1. Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomiadunen Gastuen Aurrekontuaren betearazpenak fase hauek izango ditu:

   a) Gastua egiteko baimena.

   b) Gastuaren xedapena.

   c) Betebeharraren aintzatespena.

   d) Ordainketa agintzea.

   e) Ordainketa.

2. Gastua egiteko baimena da gastu jakin bat egitea erabakitzeko egintza; gastuari zenbateko zehatza edo gutxi gorabeherakoa ezartzen zaio, eta aurrekontu-kreditu oso bat edo kreditu zati bat xede horretarako gordetzen da.

   Baimena ematearekin batera, gastua betearazteko prozedurari ekiten zaio; horrek ez dakar Foru Ogasunaz kanpoko inorekin harremanik izaterik.

3. Gastuaren xedapena da aurretik baimendutako gastuak burutzea erabakitzeko egintza, legez ezarritako tramiteak bete ondoren, eta zenbateko zehatzean edo zehaztu daitekeen zenbatekoan.

   Xedapenak eragin juridikoa du hirugarrenen aurrean, Foru Ogasuna gastua egitera behartzen baitu, ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan.

4. Betebeharraren aintzatespena da onetsitako eta xedatutako gastu baten ondorioz Foru Ogasunari kredituren bat eska dakiokeela adierazteko egintza.

   - Foru Ogasunaren betebeharra aintzatetsi aurretik, organo eskudunari agiri bidez frogatu beharko zaio prestazioa egin izana edo hartzekodunak duen eskubidea, gastua onesteko eta xedatzeko hartu ziren erabakien arabera.

   - Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehaztuko du, gastu motaren arabera, zein agiri eta beharkizun behar diren betebeharraren aintzatespena justifikatzeko.

5. Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomiadunen betebeharrak iraungi egingo dira ordainketaren, konpentsazioaren edo preskripzioaren bidez, edo arau honetan eta ezar daitezkeen xedapen berezietan ezarritako beste edozein bide erabilita.

6. Artikulu honen lehenengo paragrafoan adierazi diren betearazpen-faseetariko bat baino gehiago administrazio-egintza bakarrean bildu ahal izango dira, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak gastuen izaera eta ekonomiaren eta administrazio-lanen arintasunaren irizpideak kontuan harturik egoki deritzen kasuetan.

### 76. artikulua. Ordainketa agintzeko eskumena.

1. Ordainketak agintzeko eskumena Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari eta foru erakunde autonomiadunen lehendakariei/zuzendariei dagokie. Eskumena eskuordetu ahal izango dute, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz.

2. Ordainketa-aginduari batuko egingo zaizkio prestazioa egin izana edo hartzekodunaren eskubidea egiaztatzen duten agiriak, gastua baimendu eta xedatzeko zein betebeharra aintzatesteko hartutako erabakiekin bat etorriz.

### 77. artikulua. Zor ez diren ordainketak eta gainerako itzulketak.

1. Zor ez den ordainketa da errore materiala -aritmetikoa edo izatezkoa- dela-eta Administrazioaren aurrean kobru-eskubiderik ez duen pertsonari egiten zaion ordainketa.

2. Jaso behar ez zuen ordainketarik jasotzen duenak itzuli egin behar du kobratutakoa. Ordainketak agintzeko eginkizuna esleituta duen organoak, edo kasu bakoitzean eskuduna den organoak, ofizioz edo ordainketa proposatzen duen administrazio-organoaren berri-emate bidez, berehala xedatuko du zor ez ziren ordainketak berehala itzultzea.

3. Artikulu honetako lehenengo paragrafoan aipatutako zor ez diren ordainketen ondoriozko itzulketak barik beste itzulketa batzuk eragiten dituzten egintzen berrikusteko prozedura egintza deusez eta deuseztagarriak administrazioaren kabuz berrikusteko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen den prozeduraren araberakoa izango da, edo, bestela, sarrera bakoitzaren arauetan itzulketarako ezartzen diren prozedura zehatzen araberakoa, baliogabetzea zehazten duen kariaren arabera. Itzulketen ondoriozko sarreren eraginkortasuna foru arau honetako II. kapituluko I. tituluan ezarritakoaren menpe egongo da.

4. Itzulketa bakoitzaren arauak besterik ezar badezakete ere, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera baliogabetzat jotako ordainketen itzulketek foru arau honetako 24. artikuluan aurreikusten den interesa sortuko dute, ordainketa egin zen unetik bertatik.

### 78. artikulua. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

1. Kutxa finkoaren aurrerakinak dira finantza-erakundeetan irekitako kontu jakinetan ezartzen diren hornidurak. Aurrerakinok foru sailek edo foru erakunde autonomiadunek balia ditzakete, eta aurrerakinon xedea dituzten ezaugarri bereziengatik ordainketa-prozedura arruntaz ezin ordain daitezkeen gastuak ordaintzea izango da.

2. Kutxa finkoaren aurrerakin gisa egindako hornidurak Ogasun eta Finantza Sailak erabakiko ditu, eta berak ezarri eta aldatuko ditu kontu horietako funtsen baldintzak, kontrolak eta xedeak.

3. Kutxaren aurrerakinaren zenbatekoa abonatzeko, transferentzia egingo da baimena duten kontuetara. Kontu horietan aurrerakinetik edo haren birjarpenetik datozen sarrerak baino ez dira onartuko.

   Kontu horietan sortzen diren interesak egoki den kontzeptuari ezarriko zaizkio indarreko Aurrekontuko sarreren egoera-orrian.

4. Aurrerakinen birjarpenaren zenbatekoa egindako ordainketen zenbatekoa bera izango da. Birjarpena egiten bada, gastuak egoki den aurrekontuari egotzi beharko zaizkio eta behar diren kontabilitate-agiriak bete beharko dira.

5. Ogasun eta Finantza Sailak arau bidez zehaztuko du kutxa finkoaren aurrerakinak arautzeko prozedura.

### 79. artikulua. Justifikatu beharreko ordainketak.

1. Inoiz gertatzen bada betebeharrak justifikatzeko agiriak ezin direla aurkeztu 75. artikuluaren 4. paragrafoan adierazitako garaian eta betebeharroi ezin zaiela aurre egin kutxa finkoaren aurrerakinekin, orduan, aurrekontuaren pentzutan ordaintzeko proposamenak izapidetu ahal izango dira eta funtsak «justifikatzeko» igorri ahal izango dira.

2. «Justifikatzeko» ordainketa-aginduak agintari eskudunak dena delako gastua baimentzea ebatzi ondoren emango dira, eta aurrekontuan egoki diren kredituei aplikatuko zaizkie.

3. Ordainketa-aginduon hartzaileek funtsak jaso eta hilabeteko epean justifikatu egin beharko dute jasotako kopuruak erabili egin dituztela, eta erabili gabeko funtsak Foru Diruzaintzari itzuli beharko dizkiote; hartzaileok indarreko arautegian ezarritako erantzukizun araubideari lotuta egongo dira.

   Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak eta foru erakunde autonomiadunen lehendakariek/zuzendariek, euren eskumenen eremuan, luzatu ahal izango dute epe hori, gehienez ere sei hilabetera.

**80. artikulua. Saldoen arazketa.**

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ondokoak egiteko xedapenak eman ahal izango ditu:

a) Kontuen saldoak zuzendu eta arazteko, kreditu eta zordunketa galdagarriak edo bihurgarriak kontabilitatean ager daitezen.

b) Ordainarazpen eta diru-bilketaren ziozko kostuak estaltzeko ez-nahikotzat jotzen eta ezartzen den zenbatekoa baino zor txikiagoak eragiten dituzten likidazioak kontabilitatean deuseztatzeko eta haiei baja emateko.

**81. artikulua. Aurrekontuen likidazioa.**

1. Ekitaldi guztietako aurrekontuak egutegiko urteko abenduaren 31n likidatuko dira, eta ekitaldiari ondokoak egotziko zaizkio:

   a) Ekitaldian zehar likidatu diren eskubide ekonomikoak, sortu diren epealdia edozein dela ere, eta

   b) Hurrengo urtarrilaren 15era arte aintzatetsitako obligazioak, betiere aurrekontuko ekitaldia iraungi baino lehen egindako eskuraketa, obra, zerbitzu, prestazio edo gastuei badagozkie eta kreditu egokien pentzutan egin badira.

2. Honen aurreko paragrafoan ezarri dena gorabehera, aurreko ekitaldietan aintzatetsi ez diren betebeharrak ordainketa-proposamena egin den urtean indarrean dagoen aurrekontu-kredituetan aplikatuko dira, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte:

   a) Ordainsariak Aurrekontu Orokorren pentzutan jasotzen dituen langileriaren atzerakinen likidazioaren emaitza direnean.

   b) Aurreko ekitaldietan era egokian eskuratu diren gastu konpromisoen ondorio direnean.

   Aribideko ekitaldian kreditu egokirik ez dagoen kasuetan zuzkidura egingo da; horretarako, Arauan ezarri diren baldintzen arabera egokia den aurrekontuaren aldaketa izapidetuko da.

3. Aurrekontuen likidazioaren ondorioz, hauek zehaztu beharko dira:

   a) Kobratzeke dauden eskubideak eta ordaintzeke dauden betebeharrak.

   b) Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza.

   c) Kredituen gerakinak.

   d) Diruzaintzako gerakina.

   Aurreko a) eta b) letrak hala aribideko ekitaldiari nola itxitako ekitaldiei buruzkoak izango dira.

## IV. KAPITULUA.
## FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOEN, MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEEN ETA FORU FUNDAZIOEN KREDITUAK

### LEHENENGO ATALA.
### AURREKONTUAK ETA AURREIKUSPENEZKO FINANTZA EGOERAK

#### 82. artikulua. Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen aurrekontuak.

1. Foru enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan jasotako aurrekontuen arabera eraenduko dute beren funtzionamendua.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren erakundeen aurrekontuen egitura Ogasun eta Finantza Sailak zehaztuko du.

3. Halaber, erakunde horien kontabilitatea Kontabilitate Plan Orokorrari egokituko zaio, kasu bakoitzean aplikagarriak izango diren moldaketekin.

4. Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek nahiz foru enpresa-erakunde publikoek ustiapen-aurrekontua gertatu behar dute, eta bertan zehaztuko dituzte bakoitzak urtean dituen baliabideak eta zuzkidurak. Halaber, kapital-aurrekontua egingo dute, eta aurreko puntu berdinak zehaztuko dituzte. Ustiapen- eta kapital- aurrekontuak Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan sartuko dira.

#### 83. artikulua. Zuzkiduren izaera.

1. Kapitulu honetako erakundeei dagozkien zuzkidura onetsiak, artikulu honetan ezarriko diren salbuespenekin, gutxi gorabeherakoak dira.

2. Dena den, zuzkidurek beti izango dute izaera mugatzailea ondokoei buruzkoak direnean:

   a) Ibilgetu ukiezinean egiten diren inbertsioei buruzkoak.

   b) Ibilgetu materialean egiten diren inbertsioei buruzkoak.

   c) Inbertsio finantzarioei buruzkoak, epe luzerako gordailuei eta fidantzei buruzkoak izan ezik.

   d) Pertsonal-gastuak.

   e) Kanpo zerbitzuei buruzkoak.

   f) Epe luzerako pasiboen zenbatekoari buruzkoak, epe luzerako fidantza eta gordailuei buruzkoak izan ezik.

   g) Salbuespen moduan Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauan beren beregi aipatuko direnei buruzkoak.

#### 84. artikulua. Finantza egoera-orriak.

1. Aurrekontuen informazio osagarri moduan aurrez ikusitako edukiak biltzen dituen dokumentazio hau aurkeztu behar da:

   a) Balantzea: Erakunde bakoitzak ekitaldiko azken egunerako aurrez ikusi duen ondare-egoera eta egoera finantzarioa jasoko ditu.

b) Galera eta irabazien kontua: erakundeak ekitaldirako aurrez ikusitako emaitza jasoko du (ekitaldirako aurrez ikusitako sarrerek eta gastuek osatua), emaitza hori zuzenean ondare garbiari egotzi behar zaionean izan ezik.

c) Ondare garbian gertatu diren aldaketen egoera: Ekitaldian zehar funts propioetan gerta litezkeen aldaketa guztien gaineko informazioa jasoko du, bai ekitaldiko emaitzen ondoriozkoak direnena, bai zuzenean ondare garbiari egotzitako eragiketen ondoriozkoak direnena, bai eta kapitalaren titularrekin egindako eragiketen ondoriozkoak direnen informazioa ere.

d) Eskudiruaren fluxuen egoera: eskudirua adierazten duten moneta-aktiboen eta beste aktibo likido baliokide batzuen jatorriari eta erabilerei buruzko aurreikuspenak jasoko ditu, mugimenduak jardueren arabera sailkatuta eta zein aldaketa garbi aurrez ikusten zaien adierazita.

e) Jarduketa, inbertsio eta finantzaketen programa: memoria moduan eratu behar da eta bertan berariaz geratuko dira jasota bai iraganean lortu nahi izan diren helburuak, bai helburuok betetzeari dagokionez izandako bilakaera, bai eta lortu nahi diren helburu nagusi berriak ere; azken horiek zenbatetsita agertu behar dira eta justifikatu behar da zer aukera eta asmo dagoen helburuak lortzeari dagokionez. Aurrekoaz gainera, memoria horretan deskribatu behar da zein den erakundearen jarduera eta zein diren erakunde horrek hainbat urtetarako izan ditzakeen inbertsio-programak eta azken horien finantza-planak.

f) Etorkizuneko konpromisoak: aurreikuspenen arabera aurrekontu-ekitaldiaren amaieran hartuta baino sortu gabe egongo diren inbertsio eta gastuak, ez-aldizkakoak, jasoko ditu.

Foru fundazioen funtzionamendurako araudi espezifikoak dakartzan berezitasunak kontuan hartuta aplikatuko zaio zenbaki honetan zehazten dena foru fundazioei.

2. Honen aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazten den dokumentazioaren barruan, itxitako azken ekitaldiko datuak nahiz jarduneko ekitaldia ixteari buruzko aurreikuspenak jaso behar dira.

3. Aurrez ikusitako finantza egoera-orri horiek guztiak Kontabilitate Plan Orokorreko kontabilitate-irizpideekin eta irizpideon egokitzapenekin bat prestatu behar dira.

**85. artikulua. Finantza egoera-orrien erregularizazioa.**

Foru enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek, itxi den ekitaldiko finantza egoera-orriak onetsi ondoren, eta erakunde bakoitzak aurrekontuari dagokionez dituen mugak behin betiko ezartzearren (muga horiek Foru Arauko 83. artikuluan zehazten dira), Ogasun eta Finantza Sailak eguneratu egingo ditu indarrean dagoen ekitaldirako aurreikusitako finantza egoera-orriak.

**86. artikulua. Zorpetzearen mugak.**

1. Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauak zehaztuko du zein izango den merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga. Muga horretan, bai finantza-pasiboak bai ibilgetua eskuratzeagatiko hornitzaileak sartuko dira.

2. Epe luzerako zorpetzea bakarrik erabil daiteke inbertsio errealak, finantzarioak eta ez-materialak finantzatzeko.

3. Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek epe laburrera formalizatzen dituzten mailegu- edo kreditu-eragiketak bakarrik izan daitezke diruzaintzako beharrizanei aurre egiteko, eta ez dira zenbatuko artikulu honen lehenengo zenbakian ezarri diren ondoreetarako.

## BIGARREN ATALA.
## KUDEAKETARAKO ETA ALDAKETARAKO ARAUAK FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOETAN, MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEETAN ETA FORU FUNDAZIOETAN

### 87. artikulua. Diru-laguntzen kontabilitate-tratamendua eta balorazioa. Funts-gerakinak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan enpresa-erakunde publikoentzat, merkataritzako foru sozietateentzat eta foru fundazioentzat zehaztu diren transferentzia korronteei buruzko kredituak, jasotzaileei dagokienez, «Ustiapenerako diru-laguntza ofizialak» izango dira (edo horren baliokidea den kontu bat), baldin eta transferentzia horiek ematen badira edo gutxieneko errentagarritasuna bermatzeko, edo prezio politikoak ezarri izana konpentsatzeko edo kontratu-programetan islatzen diren jarduera zehatzak egitea suspertzeko. Transferentzia korronte horiek galera orokorrak -dela benetan gertatutakoak, dela itxaroten direnak- konpentsatzeko direnean, pasiboan kontabilizatuko dira, «Bazkideen ekarpenak galeren konpentsaziorako» kontuan edo horren baliokidea den beste kontu batean.

   Galera-irabazien kontuan edo emaitzen kontuan (kasu bakoitzean dagokiona) mozkinak lortzen laguntzen duten edo izandako galera orokorrak baino gehiago konpentsatzeko balio dezaketen funtsak eman baldin badira, zenbateko horiek gerakintzat joko dira, eta ez da horretarako adierazpenik egin behar; hortaz, foru diruzaintzari itzuli beharko zaizkio, baldin eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak eskatzen baditu.

   Bada, ondore horietarako ez dira honako hauek ez dira galera-irabazien kontuko edo emaitzen kontuko (kasu bakoitzean dagokiona) emaitzaren kalkuluan sartutzat joko: amortizazioetarako zuzkiduren gastuak; ekitaldiko emaitzara eraman diren kapital dirulaguntzak; ibilgetuaren narriaduragatiko zuzkidurak eta narriaduraren lehengoratzea, nahiz epe luzeko horniduren gaindikinak, eta truke-diferentziak (hala positiboak nola negatiboak). Nolanahi ere, baldin eta aurretik kontabilitateko mugimenduren bat gertatu bada, funtsen gaindikinen kalkulua egiterakoan aintzat hartu ez dena, mugimendu horren ondoren gertatuko den kontrako mugimendua ere ez da aintzat hartu behar.

2. Foru enpresa-erakunde publikoentzako, merkataritzako foru sozietateentzako, foru fundazioentzako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duten gainerako erakundeentzako kapital-transferentziei dagozkien kredituak, Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan bildu direnean, kapital diru-laguntzak izango dira jasotzaileentzat.

   Aurreko paragrafoan adierazi diren transferentziak direla-eta funts-gerakinak sortzen badira, transferentzia horiekin finantzatu nahi ziren inbertsioak burutu ez direlako edo burutzapena atzeratu egin delako, bada, orduan, gerakinok foru diruzaintzari itzuli beharko zaizkio, baldin eta inbertsioa bete ez bada; dena dela, atzerapena badago, aplikatzeke dauden kapital diru-laguntza moduan islatuko dira kontabilitatean. Azken kasu horretan, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren baimena behar da, erakunde onuradunak aurretiaz jakinarazi ondoren.

### 88. artikulua. Zuzkidura mugatzaileen aldaketa.

1. Aurrekontuaren aldaketatzat joko da zuzkidura mugatzaileetan aurrekontuetan egiten den aldaketa oro.

2. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua da aldaketa horiek onesteko organo eskuduna; aurretiaz, baina, horretarako eskaera egin behar du erakundea atxikita dagoen Saileko diputatuak.

3. Aldaketa eskatzeko espedientean hauek zehaztuko dira:

   a) Eskatu den aldaketaren beharrizanaren justifikazioa edo urgentzia.

   b) Zuzkiduren zehaztapena eta zenbatekoa, zuzkidura horietarako aurreikusita dagoen finantzaketa eta, hala denean, zorpetze berria zein xedetarako erabiliko den.

c) Aurrez ikusitako balantzea eta aurrez ikusitako galera-irabazien kontua edo aurrez ikusitako emaitzen kontua -kasu bakoitzean dagokiona-, proposatu den aldaketaren arabera eguneratuta.

4. Zuzkidura handiago hori izaera mugatzailea duten beste soberako partida batzuetako funtsez finantzatzea aurreikusi baldin bada, aldaketa egiteko baimenak aldaketa eragin duten partiden gutxipena ekarriko du.

5. Zuzkidura mugatzaile baten aldaketa Foru Aldundiaren aurrekontuaren aldaketa baten ondorio baldin bada edo horrelako bat sortzen baldin badu, bi aldaketa horiek batera izapidetu beharko dira.

6. Eskatu den aldaketaren jatorria sarreren gehikuntza denean, aldaketa onesteko nahitaezkoa izango da sarrerok benetan lortzea edo sarrerok lortzeko konpromiso irmoa izatea. Horren guztiaren muga izango da finantzatuko duen sarreraren zenbatekoa.

7. Eskatu den aldaketaren jatorria, printzipioz behintzat izaera mugatzailerik ez duen gastuaren zuzkiduraren murrizketa denean, aldaketa hori, onestearekin batera, zuzkidura mugatzaile bihurtuko da zenbateko berriari dagokionez.

8. Aldaketak kanpo-zerbitzuetarako zuzkidurei badagozkie eta aldaketa horien guztien zenbatekoa, guztira, ez bada zuzkiduron hasierako zenbatekoaren % 5 baino handiagoa, eta horretarako finantzaketa badago, aldaketak eragindako erakundea edo sozietatea atxikita dagoen Saileko foru diputatuari dagokio aldaketa baimentzea; baimen horren berri eman behar zaio Ogasun eta Finantza Sailari, foru arau honetako 83. artikuluan ezarri denaren ondoreetarako.

### 89. artikulua. Aurrekontuen itxiera eta likidazioa.

Aurrekontuak urte bakoitzaren abenduaren 31n itxiko dira. Ekitaldi bakoitzari buruzko agiriak Ogasun eta Finantzen Foru Sailari bidaliko zaizkio, enpresa-erakunde publikoa, merkataritzako sozietatea edo fundazioa atxikita dagoen foru sailaren bidez; horretarako, foru arau honetako 103. eta 104. artikuluetan ezarri diren prozedura, informazio eta epeak beteko dira.

## V. KAPITULUA.
## AURREKONTU LUZAPENAREN ARAUBIDEA

### 90. artikulua. Aurrekontu orokorren luzapena.

1. Aurrekontuei buruzko Foru Araua ez balitz aurrekontuoi dagokien ekitaldiaren lehenengo eguna baino arinago onetsiko, aurreko ekitaldiko aurrekontuak berez luzatuko lirateke, harik eta berriak onetsi eta argitaratu arte.

2. Luzatu diren aurrekontuetako zuzkiduren zenbatekoa aurreko ekitaldi ekonomikoko azken eguneko behin betiko kredituei dagokiena izango da, foru arau honetako 107. artikuluan ezarri dena gorabehera.

3. Aurrekontu luzapenaren arautzea kapitulu honetan ezartzen denari doituko zaio.

### 91. artikulua. Luzapenaren araubidea.

1. Aurrekontu orokor luzatuek indarrean dagoen antolaketa-egoerari edo luzapenaren xedea den ekitaldirako aurreikusi den antolaketa-egoerari ondoen egokitzen zaion egitura har dezakete.

   Aipatu den moldaketa horren ondoriozko doikuntzek ezin dute inoiz eragin luzatu den aurrekontuaren zenbatekoa handiagoa izaterik.

2. Luzatu den sarreren aurrekontuan sartuta dauden zenbatekoak gutxi gorabeherakoak izango dira.

3. Aurrekontua luzatuta dagoen aldian arau hauek eraenduko dute:

   a) Plantilaren muga: plantila osatu egin daiteke, harik eta luzatu diren aurrekontuetan onetsi zen muga osatu arte.

   b) Abalak: abalak eman daitezke, luzatu diren aurrekontuetan ezarri diren baldintzetan; abal horien zenbatekoa izango da aurrekontu luzatuotan baimentzen den gehieneko mugan erabili ez den zenbatekoa.

   c) Finantza-eragiketa berriak itundu daitezke, luzatu diren aurrekontuetan ezarri diren baldintzetan eta horietan baimendu den gehieneko mugara arte.

4. Luzatutako aurrekontuetako kredituen zenbatekoak ondoko mugak izango ditu:

   a) Foru Aldundiak handitu egin ditzake langileen ordainsariak, aplikagarria den araudi edo itunarekin bat.

   b) Ez dira luzatuko jatorria kreditu-eransketa edo kreditu-sortarazpenetan duten kredituak. Kreditu erantsien kasuan, kredituetan erabili ez den zatia soilik luzatuko da.

   c) Izendun esleipenak aribideko ekitaldiko konpromisoei aurre egiteko beharrezkoa den zenbatekoan luzatuko dira.

   d) Foru sektore publikoko erakundeen aldeko transferentziak kontsignatzeko, erakundeon aurrekontuei Foru Aldundiaren aurrekontuen luzapenerako ezarrita dauden arau berberak aplikatzearen ondorioz lortzen den zenbatekoa erabiliko da.

   e) Batzar Nagusientzako aurrekontu-zuzkidurak batzar horien aurrekontuetan onetsitako zenbatekoaren arabera kontsignatuko dira.

   f) Izaera sozialeko eta sortzapen periodikoko prestazio ekonomikoak prestazio horien araudi espezifikoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoan kontsignatuko dira.

   g) Finantza aktiboei dagokienez, indarrean dauden akordio edo itunak aplikatuz nahitaez egin behar diren jarduerak helburu dituzten kredituak luzatuko dira.

   h) Euskal Autonomia Erkidegoari egindako ekarpenak eta Estatuaren kuporako egindako zuzkidurak horiei guztiei aplikagarriak zaizkien xedapenen ondoriozko zenbatekoan kontsignatuko dira luzatutako aurrekontuan.

   i) Zerga itunduak erakundeen artean banatzearen ondorioz udalen alde egiten diren transferentziak aurreko idatz-zatian ezarri dena kontuan hartuta kontsignatu eta izapidetuko dira, eta luzatu den ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari buruzko Foru Arauan arautu den banaketarako irizpideari jarraituko zaio.

   j) Ekitaldia hasi aurretik baimendutako edo ekitaldian zehar itundutako finantza-eragiketen ondoriozko gastuak egin ahal izango dira, indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

      Interesei, kapitalaren amortizazioari eta zorraren gastuei dagozkien gastuak jaulkipen bakoitza arautzen duten baldintzen, maileguen kontratuen eta gainerako finantza-eragiketen araberakoak izango dira.

5. Luzatutako aurrekontua indarrean sartzen denean ez badago lehendik hartu diren urte anitzeko konpromisoei aurre egiteko diru-izendapenik edo dagoen diru-izendapena ez bada nahikoa, bada, orduan, kreditua aldatu egin beharko da, arestian aipatutako konpromisoei aurrekontu-estaldura emate aldera; aldaketa hori ez da foru arau honetako 59. artikuluko 2. paragrafoan ezartzen diren mugen menpe egongo.

6. Luzapenak dirauen artean, aurrekontuaren aldaketak foru arau honetan eta luzatutako ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera eraenduko dira.

7. Foru Aldundiak hartu dituen eskumenak direla-eta luzatu den aurrekontuaren zenbatespena aldatu egingo balitz, Ogasun eta Finantza Sailak kredituak aldatzeko beharrezkoak diren espedienteak prestatuko lituzke, eskumenon finantzaketa egokia bermatze aldera.

8. Luzapena bukatu ondoren, behin betiko aurrekontuek urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreak izango dituzte eta aurrekontuotan jasotzen diren kredituak hasierako kreditutzat joko dira.

9. Ekitaldi berrirako aurrekontuetan ez balitz aurrekontua luzatuta egon den bitartean baimendu diren kredituetako bat, edo kreditu horiek zenbateko txikiagoan jasota baleude, kreditu horri dagokion zenbatekoa kitatu egingo da ukitutako programaren kargura. Hori posible ez balitz, Sail bereko kredituen kargura kitatuko litzateke. Beste kasu batean, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak ezarriko luke zuzkidura hori egiteko prozedura.

10. Aurrekontuaren luzapena indarrean dagoen ekitaldiko abenduaren 31n ekitaldi horretarako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Araua onetsi gabe badago, luzatutako aurrekontua behin betikoa dela ulertuko da, eta orokorrean ezarrita dagoen eran likidatuko da.

## VI. KAPITULUA
## BATZAR NAGUSIENTZAKO INFORMAZIOA EMATEA

### 92. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Foru Aldundiak Batzar Nagusiei igorri behar dizkie foru sektore publikoaren kontuak eta agiriak. Igorpenen maiztasuna, xehetasun maila eta baldintzak kapitulu honetan ezarriko dira.

2. Informazioa betearazpen egunaren ondorengo bi hilen barruan igorriko da. Epe horretan informaziorik aurkeztu ezean edo osatu gabe aurkeztuz gero, beren beregi jakinaraziko da.

3. Aurreko paragrafoan aipatu den epea ez zaio ezarriko ekitaldiaren amaierari dagokion hileroko, hiru hileroko eta sei hileroko informazioari. Informazio hori Kontu Orokorrean sartuko da.

### 93. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundia eta foru erakunde autonomoak.

Foru Aldundiari eta foru erakunde autonomiadunei buruzko ondoko informazioa igorri behar zaie Batzar Nagusiei:

1. Hilero:

    a) Aurrekontu-kredituen aldaketen laburpena.

    b) Aurrekontuek sarreren eta gastuen egoera-orrietan duten betearazpenaren laburpena.

    c) Zerga itunduen bilketaren egoera-orria, aurreko ekitaldikoarekin alderaturik.

    d) Aurrekontu zorraren egoera eta epealdian zehar izandako aldakuntzak.

2. Hiru hilean behin:

    a) Plantillaren osaeran izandako aldaketak.

    b) Urte askotarako gastu-konpromisoen zerrenda.

    c) Erakundeari emandako abalen eragiketak eta guztira abalatutako zenbatekoa.

   d) Balantzea eta emaitzen kontu ekonomiko-patrimoniala.

3. Sei hilean behin:

   a) Aurrekontu-programetako helburuak eta ekintzak nola gauzatu diren.

   b) Kofinantzatutako gastuengatiko sarrerei buruzko informazioa.

   c) Diru-laguntzei buruzko informazioa, baldin eta diru-laguntza horien emakida, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorraren arabera, ez bada «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu; halaber, salbuespen modura emandako diru-laguntzei buruzko informazioa ere bai, hain zuzen ere, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuengatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak dituztela.

   d) Diru-laguntzen programen gaineko ebaluazioa, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorrak zehazten duenarekin bat, hauek neurtu ahal izateko: programa horiekin lortutako emaitzak; programon erabilgarritasuna eta eragin soziala, eta programa horiek mantendu ala kentzearen komenigarritasuna.

### 94. artikulua. Foru enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak.

Hiru hilean behin, enpresa-erakunde publikoei, merkataritzako foru sozietateei eta foru fundazioei buruzko informazioa igorri behar zaie Batzar Nagusiei:

a) Haien zuzkidura mugatzaileen kasuan baimendutako aldaketen zerrenda.

b) Epe luzera eginiko zorpetze-eragiketen zerrenda eta haien saldoa.

c) Balantzea.

d) Galera-irabazien kontua edo emaitzen kontua, kasu bakoitzean dagokiona.

# III. TITULUA.
# KONTABILITATEA

## I. KAPITULUA.
## XEDAPEN OROKORRAK

### 95. artikulua. Definizioa eta xedea.

1. Kontabilitate publikoa foru sektore publikoaren ondareari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa antolatzeko tresna edo sistema da. Kontabilitateak, agiri, kontu, liburu eta egoera-orrien bitartez, kontabilitatea egin behar duten erakunde guztien ondare-, finantza- eta aurrekontu-egoeraren zein emaitzen irudi zehatza ematen du.

2. Lurralde Historikoko foru sektore publikoak egiten dituen egintza eta eragiketa ekonomiko guztiak sektore horretako kasuan kasuko erakundearen kontabilitatean agerrarazi beharko dira, eta ezarriko den eran justifikatu beharko dira.

### 96. artikulua. Kontabilitate-informazioaren hartzaileak.

Foru sektore publikoko erakundeen kontabilitateak ondokoentzat sortzen du informazioa: ordezkaritza politikorako organoentzat, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen zuzendaritza- eta kudeaketa-organoentzat, foru sektore publikoko kanpo-kontrolerako organoentzat, erakunde publiko eta pribatuentzat eta herritar guztientzat. Hori guztia indarrean dauden xedapenetan ezarritako eran eta mugen barruan egingo da.

### 97. artikulua. Kontabilitate publikoaren xedeak.

Kontabilitate publikoaren bitartez xede hauek bete behar dira:

a) Politika, antolaketa, ekonomia eta kudeaketaren arloetan erabakiak hartzeko behar den informazioa ematea.

b) Mota guztietako aurrekontuen betearazpena erregistratzea, eta bai ondarearen eta diruzaintzaren egoeran izandako mugimenduak ere.

c) Zerbitzuen kostua eta, hala dagokionean, emankortasuna zehaztea.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra gertatu eta aurkeztea, eta bai gertatu behar diren edota Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igorri behar zaizkion kontuak eta kontabilitateko gainerako agiriak ere.

e) Foru sektore publikoaren kontrol ekonomikoa eta finantza-kontrola egikaritzea.

f) Foru sektore publikoko erakundeen jarduerek duten eragin ekonomikoa eta finantzarioa aztertzeko tresna izatea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontu ekonomikoak egiteko behar diren datuak eta aurrekariak eskaintzea.

### 98. artikulua. Kontabilitatearen araubideak.

1. Kontabilitate publikoaren araubidean erabiltzen diren kontabilitateko printzipioak eta arauak Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean, berau garatu duten arauetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoak dira.

2. Enpresa-kontabilitatearen araubidean erabiltzen diren kontabilitateko printzipioak eta arauak kontabilitatearen arloko merkataritza-arautegian eta batez ere Kontabilitate Plan Orokorrean eta berau garatu duten xedapenetan ezarritakoak dira.

### 99. artikulua. Kontabilitatearen subjektuak.

1. Kontabilitate publikoaren pean egongo dira sektore publiko administratiboa osatzen duten erakundeak.

2. Enpresa-kontabilitatearen pean egongo dira enpresa-sektore publikoa osatzen duten erakundeak.

### 100. artikulua. Foru Aldundiaren eskumenak.

Foru Aldundiak kontabilitatearen arloan eginkizun hauek beteko ditu, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuz gero:

a) Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onestea.

b) Foru sektore publikoko erakundeei kontabilitateko zein araubide ezarri behar zaien zehaztea, haiek arautzen dituzten arauetan horri buruz ezer xedaturik ez dagoenean.

c) Erakunde autonomiadunen kontabilitatearen kudeaketa deszentralizatuta burutu dadila onestea.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren edukia eta egitura onestea, foru arau honetako 105. artikuluan ezarri denarekin bat etorriz.

e) Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren hasierako onespena egitea eta Batzar Nagusiei igortzea, behin-betiko onets dezaten.

### 101. artikulua. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren eskumenak.

1. Ogasun eta Finantza Saila zuzendaritzako zentroa da kontabilitateari dagokionez, eta Sail horren esku dago:

   a) Sektore publiko administratiboaren Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onets edo alda dezan proposatzea Foru Aldundiari.

   b) Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren egokitzapenak eta garapen-araudia onestea.

   c) Enpresa-sektore publikoa osatzen duten erakundeei aplikagarria zaien Kontabilitate Plan Orokorraren garapena onestea.

   d) Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren egitura eta hura gertatzeko arauak proposatzea.

   e) Kontabilitatea izapidetzeko prozedurak onestea, eta datuen erregistroari zein kontabilitate-informazioaren aurkezpenari aplikagarriak zaizkien irizpide nagusiak zehaztea.

   f) Kontabilitateko printzipio publikoak ezarri behar dituzten foru sektore publikoko erakundeen kontabilitate analitikoaren oinarrizko printzipioak ezartzea.

2. Ogasun eta Finantza Saila kudeaketako zentroa da kontabilitateari dagokionez, eta Sail horren esku dago:

   a) Sektore publiko administratiboa osatzen duten erakundeen kontabilitatea kudeatzea.

   b) Sektore publiko forala osatzen duten erakundeen kontabilitate informazioa zentralizatzea.

   c) Batzar Nagusiei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharreko kontuak aurkez daitezela eskatzea.

   d) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra gertatzea.

   e) Kontabilitate publikoaren edo enpresa-kontabilitatearen araubidearen pean dauden erakundeek kontabilitateko eginkizuna antolatu eta egikaritzen dutela jagotea eta bultzatzea.

   f) Ogasun eta Finantza Sailaren bitartez Batzar Nagusiei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman behar zaizkien erakundeen kontuen gaineko txosten eta irizpen ekonomiko-kontable guztiak eskatzea. Orobat, erakundeon kontabilitate-informazioko sistemen baseetara zuzenean jotzeko eskubidea izango du.

   g) Foru sektore publikoaren ekonomi kontuak gertatzeko informazioa ematea.

## II. KAPITULUA.
## KONTABILITATE INFORMAZIOA.

### 102. artikulua. Kontabilitate-erantzuleak.

1. Foru sektore publikoko erakunde guztiek dute kontuak emateko betebeharra.

2. Aurreko paragrafoan aipatu diren erakundeen titularrek izango dute kontuak emateko ardura, eta honako hauek ere bai:

a) Foru Aldundiak, Foru Administrazioari dagokionez.

b) Foru erakunde autonomoetako lehendakariek/zuzendariek.

c) Enpresa-erakunde publikoetako lehendakariek/zuzendariek.

d) Merkataritzako foru sozietateen administratzaileek edo haien administrazio-kontseiluetako kideek.

e) Likidazio-prozesuan dauden merkataritzako foru sozietateen likidatzaileek.

f) Foru fundazioen patronatuetako lehendakariek.

**103. artikulua. Kontuak aurkeztea.**

1. Aurreko artikuluan aipatu diren kontuak emateko ardura dutenek urtero eman beharko dituzte kontuok hurrengo artikuluan ezartzen diren epeen barruan eta arau bidez finkatzen den eran.

2. Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuz, foru sektore publikoaren erakundeetako titularrek eman behar dituzten kontuak ezarriko ditu. Kontu horiek agerrarazi egin beharko dute titularrok aurrekontu, ekonomia, finantza eta ondarearen arloetan burutu duten kudeaketa.

3. Enpresa-kontabilitatearen araubidearen pean dauden erakundeek urteko kontuak eta kudeaketa-txostena aurkeztu behar dituzte, merkataritzako arautegian ezarririk dauden baldintzen arabera.

4. Foru Aldundiak partaidetza duen enpresa edo erakundeetan Foru Aldundiaren ordezkariei berorien izendapenean ezartzen zaizkien baldintzak gorabehera, ordezkariok erakunde horien kontabilitateko egoera-orriak eman beharko dizkiote Ogasun eta Finantza Sailari.

**104. artikulua. Kontuak aurkezteko epeak.**

1. Kontabilitate-kudeaketa deszentralizaturik duten eta kontabilitate publikoaren araubidearen pean dauden erakundeetako arduradunek Ogasun eta Finantza Sailera bidaliko dituzte euren kontuak, aurkezten dituzten kontu horiei dagokien urtearen hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen.

2. Enpresa-kontabilitatearen araubidearen pean dauden erakundeetako arduradunek Ogasun eta Finantza Sailera bidaliko dituzte euren kontuak, aurkezten dituzten kontu horiei dagokien urtearen hurrengo urteko apirilaren 1a baino lehen.

**105. artikulua. Kontu Orokorraren osaketa.**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontuek osatuko dute.

2. Kontu Orokorraren edukia, egitura eta hura gertatzeko arauak Foru Aldundiak ezarriko ditu, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak proposatuz.

   Betiere, ondorengoak jasoko ditu gutxienik Foru Aldundiak eman beharreko informazioaren barruan:

   a) Aurrekontuen betearazpena eta likidazioa.

   b) Ekitaldiko emaitza ekonomikoak eta ondarekoak.

   c) Foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondare alorretako egoera.

d) Ekonomia, finantza eta ondare alorretako egoera hobeto ulertzeko beharrezkoak diren memoriak.

### 106. artikulua. Diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina honako hauek osatuko dute: diruzaintzako fondo likidoak, gehi kobratzeke dauden eskubideak, ken ordaintzeke dauden betebeharrak; horiek guztiak ekitaldiko abenduaren 31ri buruzkoak izan behar dira. Gerakina kalkulatzeko hauek hartu behar dira aintzat: bai gastu zehatzak finantzatzeko diren baliabideak, bai kobratzeke dauden eskubideak biltzeko periodizazioa, bai kobratzeke dauden eskubideen artetik kobratzeko zail edo ezinezkotzat jotzen direnak, bai eta hurrengo ekitaldietan sor litezkeen betebeharrei erantzuteko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak ere.

### 107. artikulua. Kontu Orokorraren izapidetzea eta onespena.

1. Foru Aldundiak behin-behinean onetsiko du Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, Ogasun eta Finantza Sailak proposatuz; ondoren, Batzar Nagusietara bidali beharko da, hura aztertu eta, bidezkoa bada, ekainaren 30ean baino lehen onesteko xedez.

2. Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra onesteko erabakiaren berri eman beharko zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, jakinaren gainean egon dadin eta beharrezko ondorioetarako.

3. Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, Batzar Nagusiek behin betiko onetsi ondoren, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da, laburturik.

# IV. TITULUA.
# FORU SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-ARAUBIDEA

## I. KAPITULUA.
## FORU DIRUZAINTZA

### 108. artikulua. Eremua.

Foru Ogasunaren Diruzaintza Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Aldundiaren eta beraren erakunde autonomiadunen finantza-baliabideek osatzen dute, hots, diruak, baloreek edo kredituek, aurrekontukoak diren zein aurrekontukoak ez diren eragiketek eragindakoak.

### 109. artikulua. Eginkizunak.

Foru Diruzaintzaren eginkizunak ondokoak dira:

a) Eskubideak kobratu eta betebeharrak ordaintzea.

b) Foru Ogasunaren funtsak eta baloreak, aurrekontuak diren zein aurrekontukoak ez diren eragiketek eragindakoak, zentralizatzea, eta, xedapenen batek hala ezartzen duenean, beste finantza-fluxu batzuetan bitartekari aritzea.

c) Foru Ogasunaren titulartasuneko finantza-aktibo eta -pasiboak kudeatzea, Foru Aldundiaren edo beraren foru erakunde autonomiadunen ondarean sartuta daudenean izan ezik.

d) Foru Aldundiaren, beraren erakunde autonomiadunen edo, hala denean, beste administrazio batzuen edo pertsona juridiko edo fisikoen alde ematen diren bermeak zaindu, ordainarazi eta, oro har, kudeatzea, arau bidez ezartzen denaren arabera.

e) Finantza-baliakizunak aldien arabera banatzea, Foru Ogasunaren betebeharrak efizientziaz asetzeko.

f) Foru Aldundiak ematen dituen abalak kudeatzea.

g) Goian aipatu direnetatik eratortzen diren edo haiei loturik dauden beste eginkizun guztiak.

**110. artikulua. Eskumenak.**

1. Ogasun eta Finantza Sailak Foru Diruzaintzaren eginkizunei loturik dauden eskumen guztiak erabiliko ditu, foru arau honetan eta berau garatzen duten araudietan ezarririk dagoenaren arabera.

2. Foru erakunde autonomiadunen organo eskudunek diruzaintza-eginkizunei loturik dauden eskumenak erabiliko dituzte, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

**111. artikulua. Kobrantzen eta ordainketen arautzea.**

Kobrantzak eta ordainketak arau bidez ezartzen diren baliabide eta baldintzekin bat etorriz egingo dira.

**112. artikulua. Finantza-fluxuen egokitzapena.**

109. artikuluaren e) idatz-zatia betetzeko, Foru Administrazioaren Sailek eta beraren erakunde autonomiadunek Ogasun eta Finantza Sailari aurkeztu beharko dizkiote sail horrek ordainketei eta kobrantzei buruz eskatzen dizkien datu, aurreikuspen eta agiriak.

**113. artikulua. Urteko finantza-plana.**

1. Ordainketen aldien banaketa egokia eta zorpetze-premien balorazio zuzena egiteko, Ogasun eta Finantza Sailak urteko finantza-plana egingo du, eta ordainketa-aginduak plan horretara egokituko dira. Horrez gain, egin beharreko kobrantzen aurreikuspena jasoko da plan horretan.

2. Plana egiteko, planean eragina izan dezaketen ordainketa eta kobrantzei buruz egoki deritzen datu, aurreikuspen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dira.

3. Planaren gauzatzeari buruzko datuen arabera edo kobrantza eta ordainketen aurreikuspenen aldaketen arabera aldatu ahal izango da finantza-plana ekitaldi batean.

**114. artikulua. Finantza-erakundeekiko harremanak.**

1. Finantza-erakundeak bitarteko aritu ahal izango dira Foru Ogasunaren kobrantza eta ordainketetan, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak baimena emanda. Baimen hori banan-banakoa izango da, eta dagozkion kontuak erabiltzeko baldintzak ezarriko ditu.

2. Ogasun eta Finantza Sailak hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu finantza-erakundeekin, Foru Ogasunaren funtsak jasotzen dituzten kontuen funtzionamenduaren araubidea zehazteko.

## II. KAPITULUA.
## SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOAREN ZORPETZEA

### LEHENENGO ATALA.
### ZORPETZEA ORO HAR

**115. artikulua. Gaitasuna.**

Foru Administrazioak zorpetze-eragiketak itundu ahal izango ditu; eragiketa horiek zor publikoaren jaulkipenak edo modalitate guztietako kreditu- edo mailegu-eragiketak eginez burutuko dira.

Foru erakunde autonomiadunek ezin izango dute epe luzerako zorpetze-eragiketarik itundu.

### 116. artikulua. Sailkapena.

1. Foru zorpetzea aurrekontukoa edo aurrekontuz kanpokokoa izan daiteke, xedea aurrekontuak betearaztearen ondoriozko betebeharrak finantzatzea den edo diruzaintzaren aldi baterako beharrei erantzutea den.

2. Aurrekontuen kudeaketak eragiten dituen betebeharrak finantzatu edo Diruzaintzako beharrei aurre egiteko xedea ez duten finantza-pasiboetarako, Foru Aldundiak aurrekontukoa ez den zorpetzea erabaki ahal izango du, eta hala egiteko zergatiak adieraziko ditu.

3. Zorpetzea publikoaren ondoriozko finantza-gastu eta -sarrera guztiak, salbuespenik gabe, Foru Aldundiaren aurrekontuari aplikatuko zaizkio.

### 117. artikulua. Ezaugarriak.

Zorpetzea legezko erabilerako monetaz izendatu ahal izango da Estatuaren lurraldearen barruan, baita atzerriko monetaz ere; halaber, aipatu den lurraldean zein atzerrian burutu ahal izango da, eta eragiketaren kostu eta arrisku egokiak ahalbidetzen dituzten epea, interes-tasa, ordezkaritza eta beste edozein ezaugarri bildu ahal izango ditu.

### 118. artikulua. Aurrekontuko zor biziaren mugak.

Ekitaldiaren itxieran Foru Aldundiaren zorpetzea bizia ezin izango da diru-sarrera arrunt propioen aurrekontua baino 1,5 bider handiagoa izan, behin guztirako sarrera arruntetatik Foru arau honetako 29. artikuluan zehazten diren erakunde-betebeharrei dagozkien gastuak kenduta.

### 119. artikulua. Epe luzerako zorpetzea.

Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak epe luzerako zorpetzearen gehienezko muga onetsiko du ekitaldi bakoitzeko.

### 120. artikulua. Epe laburrerako zorpetzea.

Urtebetetik beherako epea duten zorpetze-eragiketak, baldin eta Diruzaintzan gertatzen diren desfaseak finantzatzeko xedatzen badira, ez dira konputatuko 118. artikuluaren mugen barruan, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baimendu eta finkatuko ditu epe laburrerako finantzazio hori gauzatzeko baldintzak.

### 121. artikulua. Zorpetzean eragina duten finantza-eragiketa bereziak.

1. Ogasun eta Finantza Sailak hainbat finantza-eragiketa itundu ahal izango ditu, arriskua edo kostua gutxitu edo dibertsifikatzeko, merkatuan hobeto kokatu edo bere egoera defendatzeko, edo, oro har, zorpetzearen finantza-kudeaketa egokia burutzeko.

2. Goiko paragrafoan aipatutako eragiketetarako, hainbat produktu eratorriren erabilera generikoa egin ahal izango da; esaterako, ondoko produktuak erabili ahal izango dira: finantza-trukaketak, aukerak, gerokoak, edo azpiko hainbat aktibotan oinarriturik dagoen beste edozein finantza-tresna, baldin eta itxaropenetara ondoen egokitzen den finantza-kudeaketa burutzeko beharrezkoa bada.

## BIGARREN ATALA.
## ZOR PUBLIKOA

### 122. artikulua. Jaulkipena.

1. Zor publikoaren jaulkipena Foru Aldundiak erabakiko du, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta.

2. Jaulkipenerako erabakian hala eragiketaren gehienezko zenbatekoak nola eragiketa egiteko mugaeguna zehaztuko dira.

3. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako erabakian adierazten ez diren jaulkipenaren gainerako ezaugarriak ezartzea.

**123. artikulua. Bideratzea.**

1. Foru Aldundiaren zor publikoa kontuko idaztoharrez edo formalki aitortzen duen bestelako bide batez adierazi ahal izango da.

2. Foru zor publikoaren jaulkipenak Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta udalekin edo Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuekin batera burutu beharreko jaulkipenen zati izan daitezke, finantza-merkatuetan baldintzarik onenak lortze aldera.

**124. artikulua. Preskripzioa.**

1. Bosgarren urtean preskribatuko du foru zor publikoaren interesak eta itzultzekoak diren kapitalak ordaindu beharrak; epe hori, hurrenez hurren, interesen mugaegunetik eta kapitalak itzultzeko deia egiten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Bihurketarako edo derrigorrezko trukerako deia egiten denean, kapitalak itzuli beharrak hamargarren urtean preskribatuko du, eragiketarako ezarritako epearen azken egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Baldin eta foru zor publikoaren ondoriozko betebeharrak hirugarren baten bidez ordaintzen badira eta 6 hilabete igaro ondoren hirugarren horrek ezin badizkie edukitzaileari edo titularrari ordaindu, zenbatekoa hirugarrenaren eskura jarriko da Foru Diruzaintzan, eta betiere artikulu honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoari eutsiko zaio.

3. Kode Zibilaren xedapenen arabera egiaztatuko da preskripzioaren etetea.

4. Foru zor publikoaren kapitalek hogeigarren urtean preskribatuko dute, kapitalon interesik jaso gabe; era berean, kapitalon titularrak ezin izango du Foru Ogasunaren aurrean interesak jasotzeko eskubiderik erabili.

## HIRUGARREN ATALA.
## KREDITU- EDO MAILEGU-ERAGIKETAK

**125. artikulua. Onespena eta kudeaketa.**

1. Foru Aldundiak finantza-erakundeekiko kreditu- edo mailegu-eragiketak baimendu ahal izango ditu, eta onartu behar dituzten ezaugarri nagusiak adieraziko dizkie.

2. Ogasun eta Finantza Sailak kreditu- eta mailegu-eragiketak itundu eta kudeatuko ditu, eta dagokien kontratuan mailegariari dagozkion ahalmenak erabiliko ditu.

## III. KAPITULUA.
## ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

**126. artikulua. Enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak.**

1. Enpresa-erakunde publikoek ezin izango dute epe luzerako zorpetze-eragiketarik itundu.

2. Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek kasu batean bakarrik egin ahal izango dituzte epe luzerako zorpetze-eragiketak, eragiketon ezaugarriak, epea eta formalizazioaren araubidea edozein direla ere; hain zuzen ere, kasu honetan: zorpetze-eragiketa horiek sozietate-fundazioon aurrekontuetan edo indarreko arautegiaren arabera onetsitako aurrekontu aldaketetan jasotzen badira.

3. Kapital aurrekontuaren eragiketei aurre egiteko erakundeak dituen finantza-beharrizanetara mugatuko dira eragiketa horiek.

4. Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak epe luzerako zorpetzearen gehienezko muga onetsiko du ekitaldi bakoitzeko.

5. Epe labur eta luzerako zorpetze-eragiketa guztiek, formalizatu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailaren baimena behar dute.

## IV. KAPITULUA.
## ABALAK

### 127. artikulua. Abalak ematea.

1. Foru Aldundiak epe luzera itundutako kreditu-eragiketen ondoriozko betebeharrak bermatu ahal izango ditu, dagokion abala edo kontrabala egiletsiz, eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako muga eta onuradunak kontuan hartuta.

   Subsidiarioki egiletsiko dira abalak eta kontrabalak.

2. Foru sektore publikoko gainerako erakundeek ezin izango dute abal edo kontrabalik eman, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiak berariazko baimena ematen badie.

### 128. artikulua.-Muga.

Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzean eman beharreko bermeen gehienezko zenbatekoak ezin izango du Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan ezarritako muga gainditu. Goiko mugaren ondoreetarako, formalizazioaren unean bermatzen den betebeharraren printzipala baino ez da kontuan izango.

### 129. artikulua. Onuradunak.

1. Bermeen emakida foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen alde egingo da, Foru Aldundiak egokitzat jotzen dituen finantza-muga eta -helburuen barruan.

2. Era berean, Foru Aldundiak partaidetutako partzuergoek eta kapitalik gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateek formalizaturiko zorpetze-eragiketak abalatu ahal izango dira.

3. Salbuespenez, pertsona fisiko edo juridikoek egin eta aurreko ataletan zehaztu ez diren eragiketak abalatu ahal izango ditu Foru Aldundiak. Kasu horretan, abalatutako ondarearen gaineko ondasun edo eskubiderik badago, ondasun eta eskubideon gaineko berme errealak eskatuko dira.

### 130. artikulua. Organo eskuduna.

1. Foru Aldundiari dagokio abal eta kontrabalen mailegua onetsi eta aldatzea. Bermea emateko interesaturik dagoen sailak igorriko du proposamena, eta proposamenarekin batera eragiketaren bideragarritasunari buruzko txostena eta Ogasun eta Finantza Sailaren nahitaezko txostena bidaliko dira.

2. Eman beharreko abala edo abal multzoa hiru milioi eurotik gorakoa denean edo foru arau honetako 129. artikuluko 1. Eta 2. Zenbakietan azaldutako erakundeetako bat ez den beste erakunde bati ematen zaionean, Batzar Nagusien berariazko erabakia beharko da.

   Goiko lerroaldean xedatutakotik salbuetsita geratzen da Aurrekontuei buruzko Foru Arauan merkataritzako foru sozietateei eta foru fundazioei onetsitako zorpetzea formalizatzeko beharrezkoak diren abalak eta kontrabalak ematea.

3. Bermeen emakida eta aldaketa guztiek behar izango dute Ogasun eta Finantza Sailaren nahitaezko txosten loteslea.

4. Abalak dokumentatuak izango dira, arau bidez ezartzen den eran, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak formalizatuko ditu.

### 131. artikulua. Ez-ordaintzearen ondorioa.

Foru Aldundia, abalaren emakida proposatzen duen sailaren aurrekontuko kredituen kontura, amortizazioa eta interesak ordainketa-betebeharren erantzule izango da, baldin eta zordun nagusiak ordainketa horiei aurre egiten ez badie. Abalen onuradunak foru sektore publikoko erakundeak, kapital gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateak eta Bizkaiko toki-korporazioak direnean bakarrik erabaki daiteke Kode Zibilaren 1.830 artikuluan ezarritako eskusio-onurari uko egitea.

# V. TITULUA.
# KONTROLA.

## I. KAPITULUA.
## PRINTZIPIO OROKORRAK.

### 132. artikulua. Definizioa eta aplikazio-eremua.

1. Kontroltzat jotzen da foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren gaineko kontrola, Foru Ogasunaren berezko gaien gaineko kontrola eta gai horietatik datozen eta zuzenean edo zeharka jarduera hori osatzen duten eskubide eta betebeharren multzoari lotuta dauden banan-banako eragiketen gaineko kontrola.

2. Kontrola, kapitulu honetan ezarri diren zehaztapenekin, ondokoei ezarri ahal zaie: Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten aurrekontuak dituzten erakunde guztiei, baita aurrekontu horien kontura emandako diru-laguntzak edo funtsak jasotzen edo erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei, publiko nahiz pribatuei, ere.

   Kontrolak helburu hauek ditu:

   a) Kontrolatzen den kudeaketa indarreko ordenamendu juridikoari lotzen eta egokitzen zaiola egiaztatzea eta, behar izanez gero, lotura eta egokitasuna ziurtatzea.

   b) Egindako eragiketak behar bezala erregistratu eta kontabilizatuta daudela eta, ezar daitezkeen xedapenen arabera, organo edo erakunde bakoitzak formulatu behar dituen kontu eta orrietan zehaztasunez eta arauak betez azaltzen direla egiaztatzea.

   c) Kontrolatu beharreko jarduera finantza-kudeaketa onaren printzipioen arabera, bereziki, ekonomia, efizientzia eta eraginkortasunaren printzipioen arabera egin dela egiaztatzea.

   d) Eskuratutako emaitzen maila programetan proposatutako helburuen, erabilitako baliabideen eta lortutako ondorioen arabera egiaztatzea.

### 133. artikulua. Kontrol arloko eskumena.

1. Foru arau honetan ezarritakoaren arabera, Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak beteko ditu foru arauan arautzen diren kontrol-eginkizunak. Organo horrek eskumena edukiko du, era berean, foru sektore publikoaren eremuan kontrolari dagozkion gaiak arautzeko ahala erabil dadila eskatzeko, eta aipaturiko gaien inguruko edozein ekimenetan jaramon egin beharko zaio.

2. Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak sailari atxikitako langileen bitartez beteko ditu kontrol-eginkizunak. Langileok indarreko xedapenetan ezarrita dagoen kontabilitate-

erantzukizuna izango dute, xedapen horietan ezartzen den eran. Jarduera hori zuzenean edo eskuordetuta egin ahal izango da. Horrez gain, kontrola auditoria-prozeduren bidez egitekotan, administrazioaz kanpoko baliabideak, berariaz kontratatutakoak, erabili ahal izango dira.

3. Kontrol-eginkizunak egitean, behar adina espediente, datu, txosten, aholku tekniko, aurrekari, agiri eta argibide -kontrolatzen denak bere egitekoa betetzeko beharrezko dituenak- eskatu ahal izango zaizkio bidezkotzat jotako edonori. Dagokion errekerimenduari ezin izango zaio uko egin, salbu eta, indarreko legedian ezarritakoaren arabera, ezinbesteko arrazoiak badaude edo isileko jarduerak badira.

4. Kontrol arloan eskuduna den organoaren egitura eta antolaketa arau bidez ezarriko dira, eta bai organo horren eginkizunak betetzeko modalitateen garapena ere.

**134. artikulua. Kontrolaren printzipioak.**

Kontrolak oinarrizko printzipio hauek izango ditu:

a) Kontrolatzeko gaiei dagokienez, unibertsaltasunaren printzipioa. Printzipio horren arabera, foru sektore publikoak egiten dituen ekonomia- eta finantza-jarduera guztiak kontrola daitezke.

b) Bakartasunaren eta hierarkia organikoaren printzipioa. Printzipio horren arabera, foru sektore publiko osoan organo bakar batek egiten du kontrol ekonomikoa, eta organikoki organo hori Ogasun eta Finantza Sailean dago.

c) Funtzio-independentziaren printzipioa. Printzipio horren arabera, kontrola egiten duen organoak kontrolatzen dituen organo eta erakundeekiko erabateko autonomiaz jardun behar du.

d) Erantzukizuna norberaren jarduerara mugatzeko printzipioa. Printzipio horren arabera, kontrola egiten duten subjektuek ez dute erantzukizunik izango, salbu eta doloz, erruz edo arduragabekeria larriz jokatuz Foru Ogasunari gaitz eta kalteak eragiten dizkioten egintza edo xedapen bidegabeak edo legez aurkakoak egiteagatik erantzukizuna bereganatzen dutenean, betiere, egintza edo xedapen horiek antolatu, eman eta gainbegiratzeko prozesuan parte hartu badute.

e) Lankidetza organikoaren printzipioa. Printzipio horren arabera, aitortutako eskumenen esparruan, kontrola egiten duen organoak lankidetza eta laguntza aktiboa eskainiko dizkie kontrolatzen dituen organoei, euren eginkizun eta eskumenak eraginkortasunez egin ditzaten.

**135. artikulua. Kontrolaren modalitateak.**

Kontrol-modalitate hauek egingo dira foru sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren gainean:

a) Fiskalizazioa.

b) Kontabilitate-kontrola.

c) Kontrol ekonomikoa.

d) Auditoria.

## II. KAPITULUA.
## FISKALIZAZIOA.

### 136. artikulua. Fiskalizazioaren helburua eta eremua.

1. Fiskalizazioari dagokio sektore publiko administratiboaren jarduera kontrolatzea, aplikatzen zaizkion xedapenak betetzen direla bermatzeko.

2. Foru arau honen ondoreetarako, honakoak joko dira jarduera ekonomikotzat: Foru Ogasunari eskubideak edota betebeharrak sortzen dizkioten eta garrantzi ekonomiko nabarmena duten administrazio-egintza, egitate eta eragiketak, eta funts edo baloreen mugimenduak. Fiskalizaziorako organo eskudunak erabakiko du administrazio-egintzetan eduki ekonomikorik dagoen.

3. Arau-proposamen guztiek, foru arauen proiektuak barne, baldin eta ezartzearen ondorioz dagokien ekitaldian edo ondorengoetan gastu publikoak gehitu edo sarrera publikoak urritu ahal badituzte, ekonomia- eta finantza-memoria jaso behar dute aurrekari eta aurretiazko azterketekin batera. Proposamena egiten duen sailak egin behar duen memoria horretan proposamena gauzatzearen ondoriozko aurrekontu-eraginak ezagutzeko behar beste datu adierazi behar dira, datuok behar bezala ebaluatuta.

### 137. artikulua. Aplikazio-hedadura eta -eremua.

1. Fiskalizazioaren bitartez ondokoak kontrolatu behar dira aurretiaz:

   a) Zuzenean edo zeharka eduki ekonomikoa duten erabaki-proposamenak eta foru dekretuak, baldin eta horiek eskuetsi edo onesteko eskumena edo horien ezagutza Foru Aldundiari badagokio.

   b) Sektore publiko administratiboaren edozein organok eman eta zuzeneko edo zeharkako eduki ekonomikoa duten egintza eta xedapenak.

   c) Aurrekontuetako aldaketak, ondare-eragiketak eta Foru Diruzaintzaren konturako bermeak emateko eragiketak.

   d) Zehaztu gabeko zenbatekoa gastatu beharra ekar dezaketen ekonomia-egitate eta -eragiketak, bai eta sarrera- nahiz gastu-konpromisoak dakartenak ere, direla urte batekoak direla urte anitzekoak.

2. Beste egiteko hauek ere fiskalizazioaren eremukoak dira:

   a) Kontratazio alorrean indarreko arauekin bat etorriz egiten diren lizitazioetara agertzea.

      Horrez gain, ondasunen errentamendu, enkante, eskuraketa eta besterentzearekin zerikusia duten egintzetara joatea.

   b) Obrak, dagozkien hornidurak, eskuraketak eta zerbitzuak bertaratuta egiaztatu eta aukeratzea.

   c) Ordaintzeko betebeharren aitorpena justifikatzen duten ziurtagiriak egiaztatzea.

   d) Ordainketak aldez aurretik kontrolatzea.

3. Araudiak hala ezarrita, auditoria-prozedurek ordez ditzakete fiskalizazio-prozeduren bidezko kontrol-jarduera jakin batzuk.

### 138. artikulua. Jarduteko era.

1. Fiskalizazio-eginkizunak bi modalitate ditu: fiskalizazio formala eta fiskalizazio materiala.

a) Fiskalizazio formalaren bitartez, erabakia hartu aurretik legezko betekizunak betetzen direla egiaztatuko da, espedientera nahitaez bildu behar diren agiriak aztertuz.

b) Fiskalizazio materialaren bitartez funts publikoak benetan eta eraginkortasunez erabiltzen direla egiaztatuko da.

2. Egintza, egitate edo eragiketa ekonomikoen aurretik egin behar da fiskalizazioa. Horretarako, sektore publiko administratiboaren organo eskudunek behar diren espedienteak igorri beharko dizkiote Ogasun eta Finantza Sailari, arau bidez ezarritako moduan.

3. Fiskalizazioa zehatza edo laginketaren bidezkoa izan daiteke. Baldin eta organo administratibo beretik badatoz eta epealdi jakin batean eginak badira bakarrik fiskalizatuko dira laginketa bidez egintza, egitate edo antzeko izaerako eragiketa ekonomikoak.

4. Arau bidez erabaki ahal izango da fiskalizazioa mugatzea oinarrizkotzat jotzen diren betebehar jakin batzuk betetzen direla egiaztatzera.

5. Sektore publiko administratiboko kide anitzeko organoek zuzenean eta zalantzarik gabe sarrera edo gastu publikoak sortaraziko dituzten konpromiso ekonomikoak eragin ditzaketen erabakiak hartzen dituzten kasuetan, eta organo horien sorrera eta funtzionamenduari buruzko arauek ezartzen badute organo fiskalizatzailearen arduradunen batek bertan parte hartu behar duela, arduradun horren eginkizun bakarra fiskalizazioa izango da, nahiz eta eztabaidetan ere parte hartu ahal izango duen.

### 139. artikulua. Aurretiazko fiskalizaziorik behar ez duten espedienteak.

Ondokoak aurretiazko fiskalizaziorik gabe egingo dira:

1. Langileen kontratuak eta kontratuok indarrean dirauten bitartean gertatzen diren gorabeherak.

2. Aldizkakoak eta hurrenez hurrengo tarteetan banatzen diren gainerakoak, behin jatorri duten egintza edo kontratuaren epealdiari dagokion gastua edo gastuaren aldarazpenak fiskalizatu eta gero.

3. Hiru mila eurotik beherako gastuak.

4. Kontratu txikiak.

5. Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan esleitzen diren diru-laguntza izendunak.

### 140. artikulua. Fiskalizazio-txostenak.

1. Fiskalizazio-prozeduren bitartez egiten den kontrola fiskalizazio-txostenetan gauzatuko da. Txostenak, egitea nahitaezkoa duten prozeduretan, erabakigarriak izango dira ebazpena emateko.

2. Gastuen gaietan, aldeko txostenek ez dute arrazoitzerik beharko, baina idatziz adierazi beharko dira.

3. Aurkako txostenek ondoko kasu hauetan baino ez dute etengo espedientearen tramitazioa:

   a) Fiskalizazio-txostenaren argudio nagusia kredituaren edo legezko beste finantzazio-iturri baten urritasuna denean edo kreditua eta iturri horiek desegokitzat jotzen direnean.

   b) Egintza, egitate edo eragiketa eskumenik ez duen organo batek proposatzen dituenean.

c) Ordaintzeko aginduak justifikatzen dituzten agirietan irregulartasunak sumatu edo hartzailearen eskubidea behar beste egiaztatzen ez denean.

d) Obra, hornidura, eskuraketa edo zerbitzuren bat ez dela egokia edo ez dagoela egiaztatu ondoren aurkako txostena egiten denean.

e) Espedientean funtsezkoak diren betekizun edo tramiteak bete gabe uzten direnean, edo administrazioko kudeaketa egiten jarraituz gero Foru Ogasunari edo gainontzekoei kalte ekonomikoa eragiteko arriskua dagoela uste denean.

4. Dagokion egintza erabakitzeko edo, Foru Aldundiaren eskumenekoa denean, egintza proposatzeko eskumena duen organoak, aurkako txostena ikusi ondoren, atzemandako akatsak zuzendu ahal izango ditu edo, bestela, hasieran ezbaia adierazi ahal izango dio Ogasun eta Finantza Saileko diputatuari. Eta ezbaia ebaztea derrigorrezkoa da organo fiskalizatzailearentzat.

   Ezbaiak iraunez gero, Foru Aldundiak ebatziko du behin betiko.

5. Ezadostasuna eskubide-likidazioaren onarpenari, beren egoeraren aldaketari, kopuruen itzulketari, zerga-bilketa prozesuarekin erlazionaturiko jarduerei edo sarreren fiskalizazioaren ondorioz gertatzen den beste edozein kasuri dagokionean, aurkakotasuna kontrako txosten bidez formalizatuko da, eta espedientearen tramitazioa eten egingo da.

   Egintza erabakitzeko organo eskudunak atzemandako akatsak zuzendu ahal izango ditu edo, bestela, bidezko deritzona alegatu. Ezbaiak iraunez gero, dagokion erreklamazioa jarriko zaio Ogasun eta Finantza Saileko diputatuari, espedientea igorriz. Erreklamazioa ebaztea bete beharrekoa izango da bi aldeentzat, eta amaiera emango dio prozeduraren eteteari.

6. Aurrekoa gorabehera, zergaz besteko sail-sarreren inguruko gaietan, ezbaien ebazpena artikulu honetako 4. idatz-zatian ezarritako prozedurari jarraituz egingo da.

## III. KAPITULUA.
## KONTABILITATE-KONTROLA.

### 141. artikulua. Kontabilitate-kontrolaren helburua.

1. Kontabilitate-kontrola foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren jarraipena egitean datza, eragiketa guztiak kontabilitatean behar bezala adierazten direla ziurtatu eta bermatzeko.

2. Foru sektore publikoko erakunde guztiak daude kontabilitate-kontrolaren menpe.

   Erakunde horiek behartuta daude egintza eta eragiketa ekonomikoen kontuak ematera, foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

### 142. artikulua. Kontabilitate-kontrolaren hedadura.

1. Kontabilitate-kontrolean dihardutenek eginkizun hauek bete behar dituzte:

   a) Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontabilitate-jarduera ikuskatzea, kontabilitate arlo horretan, kanpo-kontrolerako organoari eta beste organo batzuei eman behar zaizkien kontuak eta gainerako agiriak aurkezteko eskatzea eta kontu eta agiri horiek aztertzea, eta behar denean bidezkotzat jotako oharrak egitea.

   b) Foru sektore publikoko erakundeek kontabilitate arloan zein informazio igorri behar duten, noizean behin eta zein prozeduraren bitartez egin behar duten zehaztea, sektore publikoaren ekonomiari eta finantzei buruzko informazioa zentralizatu eta lantzeko eginkizunak bete ahal izateko.

2. Kontabilitate-kontrolak berezkoa du foru sektore publikoko erakundeei kontabilitate arloko mota guztietako informazioak eta erakundeotan eragina duten ekonomia eta kontabilitateko txostenak eskatzeko aukera. Horrez gain, kontabilitateari buruzko informazioa zentralizatu ahal izango dute, finkatu eta bateratu ahal izateko.

## IV. KAPITULUA. KONTROL EKONOMIKOA.

### 143. artikulua. Kontrol ekonomikoaren helburua.

1. Kontrol ekonomikoaren helburua da Foru Aldundiko organo eskudunek eman eta eduki ekonomikoa duten xedapenak aurretiaz kontrolatzea.

2. Kontrol horretatik kanpo geratzen dira zergetan eragina duten xedapen arautzaileak eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak eta kontu orokorrak onesteko diren xedapenak.

3. Edozelan ere, kontrol horren helburua izango da diru-laguntzetarako programak garatzeko eta programa horien deialdiak egiteko ematen den araudia.

### 144. artikulua. Kontrol ekonomikoaren hedadura.

Kontrol ekonomikoaren helburua da kontrolatzen diren xedapenen ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-eragina ebaluatzea, eta ondoko alderdi hauek izango ditu:

a) Proposatutako finantzazioa dagoen eta dagokion xedapenerako egokia den egiaztatzea.

b) Xedapenaren eragina edo ondorea indarreko aurrekontuko araubidean, kontabilitateko araubidean, finantza-araubidean, kontratazio-araubidean, zorpetze-araubidean edo bermeak emateko araubidean, baita foru arau honetan eta urteko aurrekontuen gainerako foru arauetan jasotako aurrekontu-araubidean eta gastu eta sarrera publikoak burutzeko araubidean ere.

c) Kontrolatu beharreko xedapenaren eragina eta dagozkion aurrekontuko programen helburu eta jarduerekiko egokitasuna, baita onetsitako aurrekontu-testuinguruekiko egokitasuna ere.

d) Proposatutako xedapenaren finantza-bideragarritasuna.

e) Foru arau honetan ezarritako arloetan duten eragina eta garrantzia direla-eta, nabarmenak diren eta Foru Ogasunari lotuta dauden beste alderdi batzuk.

### 145. artikulua. Kontrol ekonomikoari buruzko txostenak.

1. Txosten bat igorriz gauzatuko da kontrol ekonomikoa, eta xedapenak onetsi aurretik egingo da.

2. Baldin eta aurreko artikuluko a) idatz-zatian ezarritako inguruabarren arabera xedapenei buruzko kontrako txostena ematen bada edo uste bada xedapenek Foru Ogasunari kalte ekar diezaioketela, espedientearen tramitazioa eten egingo da harik eta ezbaia konpondu arte.

3. Xedapen arautzailea emateko organo eskudunak, kontrako txostena ikusita, akatsak zuzendu ahal izango ditu edo bere ezbaia, arrazoituta egon behar dena, azaldu ahal izango dio Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari, ebazpena eman dezan.

   Ezbaiak iraunez gero, dagokion saileko foru diputatuak Foru Aldundiaren esku jarriko du gaia, bidezkoa den ebazpena eman dezan.

4. Foru Aldundia bada xedapen arautzailea onesteko organo eskuduna, eta kontrol ekonomikoaren kontrako txostena badago, proposamena egin duen sailak Aldundiaren esku jarri ahal izango du ezbaia, behin betiko ebazpena eman dezan.

## V. KAPITULUA.
## AUDITORIA.

### 146. artikulua. Hedadura eta norainokoa.

1. Auditoria-prozeduren bidezko kontrolak helburu hauek izango ditu:

   a) Foru sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-kudeaketa sektorea osatzen duten erakunde, zerbitzu eta unitateen ekonomia- eta finantza-jokabidea arautzen duten xedapen eta ildoetara egokitzen direla egiaztatzea, baita legezkotasun, eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren printzipioekin bat datozela egiaztatzea ere.

   b) Kontrolatutako erakundeen kontabilitateak eta ekonomiari eta finantzei buruzko informazioak -finantzei, ondareari eta aurrekontuei dagokienez- erakundeon benetako egoera adierazten dutela eta aplikatzekoak diren xedapen eta printzipioekin bat datozela egiaztatzea.

   c) Pertsona onuradunei zein erakunde laguntzaileei dagokienez, diru-laguntzen finantza-kontrola egitea, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

   d) Aurretiazko fiskalizazioa behar ez duten espedienteen kontrola egitea.

2. Auditoria-prozeduren bidezko kontrola, orokorra nahiz banakakoa, foru sektore publikoa osatzen duten erakunde guztien gainean egin ahal izango da.

   Foru sektore publikokoak ez diren erakundeei kontrola ezarri ahal izango zaie Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura edozein diru-laguntza, laguntza edo partaidetza jasoz gero.

3. Kontrolatzen den subjektuak egindako programa edo jarduerei buruzko ekonomia eta finantzari, kontabilitateari eta kudeaketari buruzko informazio osoa edo zati bat har dezake kontrolak.

### 147. artikulua. Kontrola egiteko erak.

1. Auditoria-prozeduren bidezko kontrola sektore publikoko auditoria-arauak aplikatuz egingo da, eta, hala behar denean, oro har onartuta dauden eta aplikatu beharrekoak diren auditoria-arauak aplikatuz. Ondokoak izango dira kontrol honen modalitateak:

   a) Kontabilitateko erregulartasunaren auditoria; auditoria horren bidez, kontabilitateko informazioa eta dokumentazioa berrikusi eta egiaztatzen dira, aplikatzekoa den kontabilitate- eta aurrekontu-araudiarekin bat datozen egiaztatzeko.

   b) Betetze-mailari buruzko auditoria; auditoria horren bidez egiaztatzen da ekonomia- eta finantza-kudeaketako egintza, eragiketa eta prozedurak aplika dakizkiekeen arauekin bat egin diren.

   c) Auditoria operatiboa; auditoria horren bidez erakunde, plan, programa, jarduera edo eginkizun baten eragiketa eta prozedurak sistematikoki eta objektiboki aztertzen dira, ekonomia- eta finantza-arrazionaltasunetik eta eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren printzipioetatik kanpoko balorazio bat emateko, egon daitezkeen gabeziak antzeman eta gabeziok zuzentzeko gomendio egokiak proposatzearren.

   d) Diru-laguntzen finantza-kontrola, ondokoak egiaztatzeko:

      - Pertsona onuradunak diru-laguntza egokia eta zuzena jaso duela.

- Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntzaren kudeaketan eta aplikazioan beren betebeharrak bete dituztela.

- Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntza behar bezala eta zuzen justifikatu dutela.

- Pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako frogagirien arabera, egindako eragiketak diru-laguntzaren bidez benetan eta erregulartasun osoz finantzatu direla.

- Diruz lagundutako jardueren finantzazio egoki eta zuzena.

e) Aurretiazko fiskalizazioa behar ez duten espedienteen kontrol ekonomikoa, tramitatzeko beharrezkoak diren lege-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, nahitaez espedienteari erantsi behar zaizkion agiriak aztertuz.

f) Sistema eta prozeduren auditoria; auditoria horren bitartez, ekonomia- eta finantza-kudeaketako administrazio-prozedura bat berrikusten da, gabeziak antzeman eta, kudeaketa onaren printzipioak erabilita, zuzenketa-neurriak jarri edo ordezteko.

2. Goian adierazitako modalitate baten edo batzuek helburuak uztartzen dituzten auditoriak egitea erabaki ahal izango da.

3. Auditoriak, euren izaeraren arabera, kontrolatu beharreko subjektuaren aldi edota ekonomia-ziklo garrantzitsu bat bukatutakoan egingo dira. Edonola ere, hala erabakitzen denean, etengabeko auditoriak egin ahal izango dira, baita administrazioko zerbitzu edo unitateetan ere.

**148. artikulua. Foru sektore publikoaren urteko auditoria-plana.**

Urteko auditoria-planean jasoko dira auditoriaren bidezko kontrolaren arloan aurreikusten diren jarduerak. Plan hori Ogasun eta Finantza Saileko titularrak onetsi beharko du, plana aplikatu behar den ekitaldia hasi aurretik. Foru Aldundiari planaren berri emango zaio, eta Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusiei igorriko die, jakitun egon daitezen.

Besteak beste, urteko auditoria-planak diru-laguntza publikoen arloko kontrol-jarduerak jasoko ditu.

**149. artikulua. Diru-laguntzen finantza-kontrola.**

Pertsona onuradunei eta, hala dagokionean, erakunde laguntzaileei dagokienez, diru-laguntzen finantza-kontrola Foru Aldundiak Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kargura emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko araudi espezifikoan ezarritakoaren arabera egingo da.

**150. artikulua. Auditoria-txostenak.**

1. Kontrol-jarduera bakoitzaren emaitzak auditoria-txostenetan adieraziko dira; kontrolatutako subjektuaren ekonomia- eta finantza-kudeaketa osoari edo haren zati bat buruzkoak izan daitezke txosten horiek.

2. Auditoria-txostenak gainerako kontrol-organoek edo kanpoko auditoreek egindako txostenak erabili ahal izango ditu eta, behar denean, erantsi eta bere egin ahal izango ditu. Betiere iturria aipatu beharko da.

3. Kontrolatutako erakunde edo organoei, ukitutako sailetako foru diputatuei, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari eta, garrantzi handiko kasuetan, Foru Aldundiari igorriko zaizkie txostenak.

Kontrol-organoak, behin betiko txostenak igorri aurretik, kontrolatutako pertsona edo erakundeari emango dio egindako kontrolaren emaitzen berri, ezarritako eran eta epean egoki iritzitako dokumentu eta ziurtagiriak alegatu edo aurkez ditzan.

4. Goian adierazitako hartzaileek beste inork ezin ditu eskuratu auditoria-txostenak, eta ondo erabili eta zaintzearen erantzukizuna edukiko dute.

### 151. artikulua. Kontrol-aktak.

Auditoria bidezko kontrola egiten denean, foru sektore publikoari kalte eta galerak eragin dizkioten edo eragin ahal dizkioten irregulartasunak sumatzen badira, urratze horiek adierazi egingo dira, bai aurreko artikuluan aipatu diren txostenetan, bai auditoria-akta edo diligentzietan. Organo eskudunei igorriko zaizkie auditoria-akta edo diligentzia horiek, bidezko jarduerei ekin diezaieten eta, betiere, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari, jakitun egon dadin.

### 152. artikulua. Kanpoko auditoriak kontratatzeko koordinazioa.

1. Foru sektore publikoko erakundeek finantza-auditoriak kontratatzea beharrezkoa izango da Ogasun eta Finantza Saileko kontrol organoaren parte-hartzea, auditoria horien helburu eta betebeharrak homogeneizatzeko.

2. Kontrolean dihardute funtzionarioek, beren eginkizunak egin ahal izateko, kanpoko auditoreek eginiko auditoria-txostenen oinarri izan diren lan-idazkiak eskuratu ahal izango dituzte.

# VI. TITULUA.
# ERANTZUKIZUNA

## I. KAPITULUA.
## AUDITORE, FUNTZIONARIO ETA BESTE LANGILE BATZUEN ERNTZUKIZUNA

### 153. artikulua. Printzipio orokorra.

Foru sektore publikoaren zerbitzuan dauden agintari eta langileek, baldin eta dolo, erru edo arduragabekeriagatik foru arau honetan jasotzen diren manuak urratzen dituzten egintza edo omisioetan esku hartzen badute, Bizkaiko Foru Ogasunari egintza edo omisioen ondorioz eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkiote, egokitu dakiekeen zigor- edo diziplina-erantzukizuna gorabehera.

### 154. artikulua. Ondare-erantzukizuna sortaraz dezaketen egitateak.

Aurreko artikuluan aipatu den ondare-erantzukizuna, baldin gertatzen bada, ondoko kasuetan eskatu ahal izango da:

a) Funts publikoak oker edo bidegabe erabiliz administratzen direnean.

b) Foru Ogasunaren baliabideak eta bestelako eskubideak beren kudeaketa, likidazioa, bilketa eta sarrera arautzen dituzten xedapenak aintzat hartu jardun gabe administratzen direnean.

c) Behar den beste kreditu izan gabe edo honako foru arauan edota aplikatzekoa den aurrekontuei buruzkoan xedatutakoa urratuz gastuak xedatzen, betebeharrak aitortzen edo ordainketak agintzen direnean.

d) Betebeharrak likidatzean edo agindutako eginkizunak erabilita agiriak igortzean ordainketa itzulgarriak egiteko bide ematen denean, foru arau honetako 77. Artikuluarekin bat.

e) Arau bidez betebeharra ezarrita dagoenean, kontuen berri ematen ez denean edo akats larriak dituztela aurkezten direnean.

f) Foru arau honetako 78. eta 79. artikuluetan eta aplikatzekoa den diru-laguntzei buruzko araudian aipatzen den funts-aplikazioa justifikatzen ez denean.

g) Foru arau hau urratzen duen beste edozein egintza edo ebazpena egiten denean, baldin eta aurreko artikuluko kasuren bat gertatzen bada.

**155. artikulua. Erantzuleak.**

1. Ondokoek ordaindu beharko dituzte Foru Ogasunari eragindako kalteak: ebazpena hartu edo ebazpenaren zioa den egintza egiten dutenek, fiskalizazioaren kontrola egiteko titular eskudunek, eta, egintzaren edo dagokion ebazpenaren bidegabetasun edo legezkontrakotasunari buruzko ohartarazpen idatziaren bidez, dolo, erru edo arduragabekeria larriz beren jarduera zuritu ez eta ordainketak egitea agintzen dutenek.

2. Ebazpenean edo egintzan parte hartzen duten pertsonen erantzukizuna mankomunatua izango da, salbu eta doloa gertatzen den kasuetan, zeinetan solidarioa izango den.

**156. artikulua. Organo eskudunak.**

1. Foru arau honetako 154. artikuluko a) idatz-zatian aipatu den kasua gertatzen denean, erantzukizuna Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatuko du, berariazko legerian ezarririk dagoenaren arabera.

2. Foru arau honetako 154. artikuluko b) idatz-zatitik f) idatz-zatira arte jasotzen diren kasuak gertatzen direnean, kanpoko kontrol ekonomikoaren organoaren eskumenak gorabehera, erantzukizuna interesatuari instruitzen zaion administrazio-espedientearen bidez eskatuko da.

**157. artikulua. Prozedura.**

1. Foru arau honetako 154. artikuluan azaltzen diren kasuetarik bat gertatu dela jakin bezain laster, ustezko erantzuleen buruek edo, hala denean, ordainketak agintzen dituenak, aurretiazko diligentziak instruitu beharko dituzte, eta halaber, Foru Ogasunaren eskubideak bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte, eta Foru Aldundiari berehala jakinaraziko diote gertatutakoa, Ogasun eta Finantza Sailaren bitartez.

2. Foru Aldundiari dagozkio espedientea hasteko erabakia, instrukzio-egilearen izendapena eta espedientearen ebazpena.

3. Interesatuen entzunaldiaz bideratutako espedienteari amaiera ematen dion ebazpenak Foru Ogasunaren ondasun-eskubideei eragindako kalte-galeren gainean erabakiko du.

4. Erantzukizuna eskatzeko hasten den administrazio-espedientea administrazio-prozedura erkidea arautzen duten xedapenei jarraiki tramitatuko da.

**158. artikulua. Kalteen zenbatekoaren araubide juridikoa.**

1. Erantzukizunari buruzko espedienteetan adierazten diren kalteak Foru Ogasunaren eskubidetzat joko dira, honako foru arau honetako 20. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den araubidea izango dute, eta, hala denean, premiamendu-prozedura bidez kobratuko dira.

2. Foru Ogasunak honako foru arau honetako 24. Artikuluan aurreikusten den interesa eskatzeko eskubidea izango du bere ondasun eta eskubideei eragindako erabilera oker edo bidegabekoen, kalte eta galeren zenbatekoaren gainean, kalteok egiten diren egunetik aurrera.

3. Zuzeneko zordunaren kaudimengabezia dela-eta egintza erantzule subsidiarioei hedatzen zaienean, ordainketa eskatzen zaien egunetik aurrera zenbaturik kalkulatuko da interesa.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehena. Informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera.

Foru honetan eta Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak egin, betearazi eta kontrolatzeko prozedurak arautzen dituzten gainerako arauetan jasotako gaiei dagokienez, Ogasun eta Finantza Sailak baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzeko baldintza eta betebeharrak ezarriko ditu, ondokoetarako:

a) Prozedurak arindu eta datu-trukaketa errazteko, informazioaren eta komunikazioen teknologiaren berezko euskarriek paperezko edo beste edozein bide fisikozko dokumentu-euskarriak ordeztuz, hala Bizkaiko Foru Aldundiaren edo erakunde autonomiadunen barruko tramiteetan nola hirugarrenekiko harremanetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 45. artikuluan ezarritako esparruaren barruan.

b) Foru arau honetan arautuko alderdiak tratatzeko gaituta dauden edo gaitzen duten informazio-sistemetan ezarritako baimen eta kontrolek diligentzia, eskuzko sinadura, zigilu edo eskuzko beste baliabideen bitartez eginiko baimen- eta kontrol-sistemak ordezteko, betiere hala bermatuta geratzen bada organo eskudunak bere eskumena erabiltzen duela.

### Bigarrena. Zenbatekoak eguneratzea.

Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak eguneratu ahal izango ditu 53.2, 54.3.g, 55.4, 60, 88.8, 118, 130 eta 139.3 artikuluetako portzentaje eta zenbatekoak.

### Hirugarrena. Foru sektore publikoaren erakunde batzuen egokitzapena.

1. Bizkaiko Tutoretza Erakundea izeneko zuzenbide publikoko erakundea, urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauak sortua, enpresa-erakunde publiko gisa eratzen da.

2. Estatuko Loteria eta Apustuen Nazio Erakundearen Bizkaiko Ordezkaritza (ELA) izeneko merkataritzako foru erakunde autonomiaduna enpresa-erakunde publiko gisa eratzen da.

3. Foru arau hau indarrean jartzen denean dauden foru sozietate publikoak merkataritzako foru sozietate izango dira.

### Laugarrena. Administrazio-kontratazioa eta desjabetzeko prozedura.

1. Foru Aldundiari, Ahaldun Nagusiari edo foru diputatuei dagokie kontratuak egiteko baimena ematea, helburu horretarako aurretiaz aurrekontuko diru-izendapena egonda eta legeetan ezarritako eskakizunak betez, eta desjabetze-espedienteetatik eratorritako gastuak onartzea, kontratuen zenbatekoen arabera eta Foru Aldundiaren dekretu bidez finkatzen diren mugei atxikiz.

2. Aurreko atalean adierazten den ahalmenak berekin dakar dagokion proiektua eta gastua, baldintzen pleguak eta kontratuaren adjudikazioa onesteko ahalmena, baita legeek kontratazio-organoari ematen dizkioten gainerako ahalmenak ere.

### Bosgarrena. Hitzarmenak.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomiadunek, helburua edozein delarik ere, lankidetza-hitzarmenak egin ahal izango dituzte nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko administrazio orokorrarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, dagozkion erakunde autonomiadunekin, sozietate publikoekin eta, izaera juridikoa edozein dutela ere, helburua gizarte zerbitzuen arloa duten erakundeekin.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomiadunek lankidetza-hitzarmenak egin ahal izango dituzte zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta hitzarmenaren helburua ez badago jasota herri administrazioen kontratuak arautzen dituen legerian edo administrazio-arau berezietan.

### Seigarrena. Langileak.

Aplikatzekoak diren xedapenek eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontuei buruzko foru arauak arautuko dute foru sektore publikoaren langileriaren kudeaketa.

Lehendakaritzako foru diputatuei eta foru-erakunde autonomiadunetako lehendakari eta zuzendariei, euren eskumenen barruan, dagokie langileriaren ordainketei buruzko espedienteen ordainketa baimentzea, gastua aurreikustea, betebeharra onartzea eta ordainketa proposatzea, salbu eta norberaren aseguruei buruzko espedienteen kasuan, Ogasun eta Finantza Sailak kudeatuko baititu.

### Zazpigarrena. Foru sektore publikoak kontrolatutako partzuergoak.

Foru sektore publikoko erakunderen bati atxikita dauden baina testu bategin honen 3 bis artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten partzuergoak Bizkaiko Foru Aldundiak kontrolatuko erakundetzat hartuko dira.

Partzuergo horien aurrekontuak ere jasoko dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan, informazio gisa, Ogasun eta Finantza Sailak ezartzen duen moduan. Era berean, aurrekontu horien likidazioa Bizkaiko Lurralde Historikoko kontu orokorrean jasoko da, informazio gisa.

Bizkaiko Foru Aldundiak ezarriko du partzuergo horiei zer araubide aplikatu behar zaien aurrekontuetan, kontabilitatean, kontrolean, aurrekontu-egonkortasunaren arloan eta finantza-iraunkortasunaren arloan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aurretiazko baimena behar dute partzuergo horiek egiten dituzten epe luzerako zorpetze-eragiketak; horretarako, Ogasun eta Finantza Sailak ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

## AZKEN XEDAPENA

### Bakarra. Arauzko garapena.

Diputatuen Kontseiluari ahalmena ematen zaio foru arau hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.